



## MUSIKA IXILLA

**Fray Luis de Leon**

**San Juan de la Cruz**

**euskaratzailea: Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu»**

Iturria: *Musika ixilla*, Frai Luis de Leon eta Gurutzeko Juan Deuna. Auñamendi, 1963.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GazteluMusika.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## «ORIXE» GUREAN

Zenbait egun aurretik arekin egona nintzala, nere lankizun au ia osorik egiña neukala, bat-batean ustekabe: «ORIXE» IL DA! Bai: «Orixe» zana, damurik, itzali zaigu begietatik. Orain, euskal-letrak umezurtz geldi dirala esan dezakegu, beren aitagoia il danean. Baña, ez, ez nabil zuzen, «Orixe» zana bizi da, an goian gure Axular, Mendiburu, Lizardi ta beste euskal-idazle jator askoren maikide, eta emen gurean ere aren ainbeste idazti bikañetan, jarraibide eder-eder diranak guzientzat. Itzalirik ezak? Ez noski, bestela etzan ura gizakume izango. Alaere, berak erakutsi zigun biderik zuzenena: ez berri gorri, ez zatar gordin, bai bien arteko: JATOR! Denok ortik jo bageneza! Gure aldia uskerietan galdu gabe, ona emen gure egitekoa: arek bezela euskeraz ondo ikasi eta, zintzo ta laño, lan egin euskeraren onerako.



## ATALAURREA

Norbaitek diñokena: ba da gurean eginkizun bearragorik euskal-idazleok lenen eta apetaz irauli bear zenituztekenak, beste edozein izkuntzetako idazlan garaienak euskerara itzultzen aritu bearrean. Izan ere, eskoletako elizti, irakaspide ta egunean eguneango gertari ta arazoan berarizko ispillu litezken irakurgai argitara ematea bear-berrago da, ezbairik gabe; ortan ari dira, ain zuzen ere, gero ta ugariago euskal-idazleak. Alae-re ezkenuke aztu bear, azibidean daukagun eta, orain ez aspaldi arte, eliz-gaiei lotuxegi egona dan gure elederrari oñarri sendo bat aukeratzea ta bere esapidea alegiñez lasagotzea dagokionik. Ortarako, beste izkuntzeta-ko idazlanik ederrenak gurera aldatzea —eta ontan beste askok ere aurrea artu didate— biderik egokien eta eragikorrenetako bat derizkiot. Beste oinbeste egin dute ta egiten ari dira gurea baño eleder aziago baten jabe diran erriak; orobat egin zuten beren aldian Fray Luis Leonek eta Donibane Gurutzak, beste askoren artean, alegia hebertar, greziar ta latindar ereduak gaztelerara irauli ta egokitu. Eztegu gutxigo egin bearra eskaldunok; ortik ere iritxi dezakegu gure euskera zar-berri au esapide jori-jorie-naz gaitu dedin, bere ele-uberka zabalagotuz eta bere jatorrizko urgunea ugalduz; naiz eta lenbizi, bearbada, geron alorra landu, apaindu ta kanti-tu bear baldin badegu ere: asko dira gurean ganorazko eskuen zai dauden añadak, auek ustia ta urre garbi biur ditzaten. Baña bi jokabideok, bata besteari buru eman edo eragotzi bearrean, alkarren lagun eta osagarri ditezke euskal-kulturari buruz. Gure ele-jakitun Luis Mitxelenak au diño EGANen: «Itzulpen ugari izan dugu gure artean euskal literatura asi zen ezkeroztik... Eztakit ordea orien balioa goregi jaso ez ote daukagun. Erruz agertzen dira itzulpenak izkuntza landuetan, baiña eztiote itzulpe-nek ematen literatura bati bere mailla, berezko obrek baizik» (1960, V-XII). Egia, bai, egi borobilla. Baiña baitare ENBATAk *Culture et Folklore* idazpuruz dakarren au: «Traduire en basque les auteurs étrangers est plus utile que maintenir les danses, la pelote...». (1961-IV)

Burubide onetxek eragin dit XVI gn, mendeko bi gaztel-idazle aito-rren olerki onenak euskerara itzultzen, balinba oraingo saio au mugarri-txo bat diteke, gero ere geitu litekena. Orain dala gutxi, OLERTI aldizka-rian ale batzu argitara eman nitun, aldeztu ta merezi ez bezela txaloga-ri izan baitziran, eta neretzat ain eragikor ere. Egia esan, Ormaetxeatar Nikola («Orixe») gure ele-maisuak eragin zidan onoko argitaldi au atondu

nezan; baita len aitaturiko aldizkariaren sortzalle ta zaindari degun A, Onaindiak ere; ura, oldez ta ain gizalegez, atal-buruko ikaskizun baten bidez begiraletzat eskeñi zitzaidan, eta naiz bata naiz bestea, banan eta baten, itzulketan lankide izatea ere. Nere itzulkizunei buruz egiñiko oar-kizun eta zuzentzeak gatik esker ona zor diot «Orixe» jaunari. Neurtitzen azken-doñuari dagokionez, berriz, olerki geinetan beintzat beraren abu-rura jalki natzaio, amaikakoak doñukide ta zazpikoak beren gisa utziaz, izatez duten gogaia zuzenago ta biziago ematearren. Zorretan natzaio orobat nere itzulkizunekiko bere iritzia, nere ustez aldekoxegi zaidana, emen agertu nai izan duelako.

Euskal-letren bi aurrendari auek lagun dituala soilik ausartzen naiz burua agirian azaltzen, gure izkuntza zarrari zor diogun mailla eraiki-asmu bakarrez, egon ere alde orotatik jaukiturik baitago ta, bizinaiez, ezberdiñean burruka. Ar zazu, irakurle, egiozu begi argia, irakurri-ala zure euskal-zaletasuna bazka ta goza dedintzat; kritikak alaber, bere eginbearra danez, adieraz beza naiz zuzen naiz oker legokena.

Donosti, Mundaiz landetxean.

EGILLEAK



## SARRERA

### Orixek

Gramatikan asi nintzanetik autemana nendukan, euskera lur aitorra zala izan-izate, ots, metafisikarako. Bai bi aditz-izenak, itzen alkarketa, bakanketa ta aldaskak beste oinbeste bide ikusten nitun erabateko gogaia adierazteko. Betoz Vinson gure adixkide nolabaitekoa ta aren Perutxo Unamuno, besterik esatera. Baña ez nintzan baitaratu olerdirako ere on zala, urteetan sartutxo nintzan arte.

Urli egunean, euskal-olerki-bilduma batean, Luis Leonen *Zeruko bizia* arkitu nendun, euskeraz, poliki itzulia alaere. Nor ote dugu, esan ere nere artean, gizon ausarti ori, eta, Gaztelu iauna.

Egia esan, eziña irudi zitzaidan gaztedaniko nire maisu ua gure izkuntza landugabea emaita, eta ez nintzan artara saiatu ere, beste itzul-kizun aski zailletan oitua banindagon ere. Eta arritu zitzaidana, Gazteluk zertanbait kendu egiten ziola iatorrizkoari.

Sandi egunean, OLERTI deritzaion aldizkarian, Donibane Gurutzen Iainkorako *Maite-eresia* begi egin nizun, eta bi aldiz arritu. Nik ia eziñago uste nenduna. Ordun iruditu zitzaidan euskerara itzuli zitekela xuxen, eta ez *traduttore traditore* antzean. Nire aldan nik eskerrik aundiena eman nien bi olerki oriek euskeraz eman ezker, eziñik etzitekela uste ukan nendun gure izkuntza ustez motel ontan.

Oraindik ere nerau itzultza erabaki baiño len, *Maite-eresi* ori gordiñegi zerizkidan gururako, eta ez nintzan beiñere ausartuko, Gazteluk kutsatu ez banindu. Olako maite-leloetarako egiña zegon Gaztelania, ango idazleek Iaikora biurtu bai zuzten giza-maitekeriak ere. Orobat egin zuten musikan Moralesek eta Guerrerok.

Alde batera, ez nau osotara arritzen Fitz Maurice Kellyk *Historia de la Literatura Española*-n diñonak: alegia, neurtitz oriek lizun gordin dirala. Baliteke, bai, ingelesez euskeraz bezala gordiñago gertatzea; baiña Iainkorako artu ezker, gaztelaniz ez dute beiñipein, ilako lizunkeririk. Bestalde, Iainkoak berak emaiten digu eskubide beure liburuetan, batez ere Salomonen *Leloen Lelo* artan. Beraz, zergatik ez eman euskeraz ere?

Aspaldi aundian, ikaslanak asi ta laister, baitara nintzan euskera bere zarpillean areago zoala iakingai batzuetan inguruko erderak baiño. Baiñan olerkirako oinbeste balio zezakenik ez nendun ametsik ere. Eta orduko

itzulkiak nenduzkan neurri bereberan Elizako goratzarreak, inguruko izkuntzek egin ez dutena eta egiñen ere neketan, naski.

Gure euskera gaixo onek itzak luze eta eder ditu, itz-zati bakarrik ez du, gutxi batzuk baizik, eta alaere iritxi da gaztelania eta frantsesa iritxi ez diranera. Eta oraindik ere nola ausartu ni gaztel-olerkian aisa nagusi diranok euskeraz emaiten?

Rousselot batek au esan zigun: eguzkipeko lirikurik aundiena Fray Luis Leon zala. Ez daukate gutxiagotzat Donibane Gurutz erdaldukin geienak. Entzun M. Pelayoren itzak: «Nork emanen dauzkit itzak nik nai nuken bezala Fray Luis Leon iasotzeko? Gizakien baiño aingeruenago diran Donibane Gurutzen eresiak lekutu ezker, gaztel-lirikurik alderatzen zaionik ez dala banesa, ezer gutxi esan dudala uste nuke».

Beraz, Gazteluk bi aundienetara io du; euskeraz poliki iantzi ditu bi aundien orien olerkirik onenak. Ez ote du ioko laister goiena gure izkuntzak? Gu baiñon obeki itzuliko duztenak etorri ditezke, iakiña, ta iatorrizkoekin berdindu ere egin ditezke dirudit, erabat gaintzea neke bada ere. Gutxi al lizake gure ele ederrarentzat, besterenak olan emaita, geronetik aiek lako olerkaririk atera ez baledi ere?

Zertan dauntza euskeraren doaiak olerkirako? Itzean eta mintzoan, au da, adierazian eta adierazpidean lenbizi. Gero, itz bakoitza bere mailetik bestera alda ditekela; eta doairik zailuena, izen oro aditz biurtu ditekela iokaeran, eta aditz oro izen, orobat, Campionek irakatsi zigunez.

Uts bat du aundi xamarra gureak, aundiena ia esateko; itz luzeekikoa, errezago egin oi dugu itz-elkarketaz; baiñan aditz ele-biko orrek astuntzen digu izkera olerkirako. Besteak itz bakarrean emaiten duzten itzak, guk bitan eman bearra daukagu. Uts edo oker au zuzentzen dugu batzutan itz-ixiltzearekin bidez. Len lenagoko izkuntza zarretan egin oi zutena, guk ere egin oi dugu, ta ederki datorkigu. Gaiñera, orain berri xamar, asi zaiguz gure olerkariak iokaitz-ele-bakarrak emaiten. Ederki dago ongi egi-ten asmatu ezker; baizik ere, itz berri oriek guriña kentzen diotela olerkiari. Ele-ixiltzeak ere, badu xorapide.

Urrena, mintzaeran dago gure euskeraren aitor ona, batez ere sudur-izki esaten zaienetan. Urrenago, itz-urrenean datza gure izkeraren indarra. Oraingo izkuntzenen aldean, indar aundia emaiten dio adierazpideari, geroxeago dakuskegunez.

Ona emen, labur, gure izkeraren barruko adieraztea, au da, gramatikarena; baiña barrungo itzaren adierazte ortaz gaiñera, badute izkera guziek beren mintzoa edo mihi-soiñua. Ontan ere gurea eder nabari da. Artu dezagun, esaterako, guk gaztetan ikasi genuzan izki-ixurkiak (gar-



biak) *l, m, n, ñ, r* eta batez ere orietan *n*, sudur-izki garbia, ez kinkuna, batzuk zintzurrean ito-erazten dutena. Gure *an, en, in, on, un* oriek askotan gertatzen baitira, zillar-eskil-otsa emaiten diote izkuntzari. Grekoek ere bi izki lagungabeen artean, *n* mintxo-eder esaten ziotena ipiñi oi zuten. Gaztelanizko neurtitz ederrenetan ere izki oriek dira nabari: Gero, xistu-izki esaten zaienetan, oso ugaria da euskera:

*la de/ que huye e/mundazal ruido,  
prado de bienandanza.*

Gero, xistu-izki esaten zaienetan, oso ugaria da euskera: *s, z, x, ts, tz, tx*.

Bi eragaitz arkitzen diozat nik gaztelaniari neurtitzerako; bai eta inguruko beste izkuntzeri ere: puntua eta azentu astuna. Puntu ortan, gu ere kutsaturik gaude; geiegikoak gira, erdaldunak baiñon okerragoak. Neretzat puntua induri txar bat besterik ez da; emendioo baiño neke geiago du. Gaxte giñalarik, lenik greko-latiñezko neurtitzak ikasten eta neurtzen asi gintzan, eta ez genien ezeren utsik arkitzen. Aiek etzuten puntuarik. Eta zer neurtitz ederrak guretzat, batez ere gerok alakoak egiten ikasi genuenean. Ni euskal-bertsoak egiten gutxi edo asko asia nintzan; baiñan oso motel irudi zitzaizkidan, irakurteko beintzat, eta orain motelago berriz. Neurtitz aiek etzuten puntuarik, baiña guretzat mintzo ederra zuten, tuntunari edo igikerari begira.

Aditu ukan dut, olako edo alako gogorakizun etzirela asmatuko puntuagatik izan ez baliza. Bedi; baiña zenbat geiagotan eramaiten du puntuak neurtizlaria nai ez dun tokira! Bestera baiño geiago. Gure euskera puntu ortan errexa da, errexik iñun baldin bada; alaere ez digu beti ta askotan esanarazten guk nai genuken uaxe; asko askotan gogaiari indarra kentzen dio. Gure olerkari bati puntuak ara zer esanerazi zion misiolari batengatik: Jesukristok baiño neke geiago eraman zula. Ezaguna da gaztelaniz arako bertso ua:

*Fuerza del consonante, ¿a qué me obligas?  
A decir que son blancas las hormigas.*

Eta, begira, izketa askatuan ari dirala, ustekabeen puntu bat gerta baledie, kendu egiten dute, itsusi bailitza. Bitxi da! Izketa askatuan oker dagona nola zuzentzen da, ugarituz, neurtuan?

Ez diñot, ez, kantatzeko neurtitzetan puntua oso kentzekorik. Gure bertsolariari ez dakit nik aiña esker nork emaiten dien; baiña neurtitzak

irakurtekoan, askatu bear genuke kate astun ori. Gure Gazteluk puntua pixka bat utzi di, baiña en erabat, nik ortara eragin badiot ere. Guk asi degun bide au ibiltzen, asiko al dira laister gure ondolik datozenak.

Arrunkerri aunitz asmatuko dutela ortik io ezker? — Bai puntuekin ere; euskaldunak, bertso batzuk ondu al ukan ezker, olerkari jotzen du beure burua. Eta, zein ez da gauza oratarako Euskalerrian? Obe genuke, euskeraz egiten diran neurtitzetatik euneko bost bakarrak egiñen balira! Bearrik aztuko dir geienak! Gauza arrunteri etzaie buru emanen, ez puntuz, ez ain gabe. Balio duten bertsoak bakarrak egiñen dute igeri.

Oraingo izkuntza berriari, batez ere erromakume deritzaierari, eragaitz aundia zaie indar-mintzorra, bai izketa neurtuan, bai askatuan ere. Itz bakoitzean eta beti itz-zati berean punpetakoa emanen ez balitza, eta mintzor ori naierara alda baledi, ez legoke eragozpenik; baiñan erdera oriek ez dakarte berenez. Alaere oztopo ori ezagaturikm mintzor gogor ori ixiltzen dute, aldatzen dute, mintzor oriek elkarrengandik bertanegi naiz urrunegi baldin badaude. Galiziar bati *cuarentiñcu* entzuten badiote, irri egiñen diote; baiña iende ikasixegoek ere, bidemodu ortara ioten dute baitarazten ez dirala. Egun oro ari gira mintza-erraiñuz olako mintzor banaketa entzuten, naiz kenduz naiz geiagotuz. Esaterako, gogor lizake *le dió tal golpe en la cabeza, tal gol* orieri indarra kenduz eta *la* ri emanen. Orobat *porque los enemigos* eta olakoetan bots itz-zati ta geiago azentu gabe gelditzen baitira. Orregatik esaten dute: *porque los enemigos...* Donibane Gurutzek badu neurtitz bat nik erderaz egutzen dudana itsusia; ez baitu mintzorrik zortzigarren itz-zati arte:

*sino la que en el corazón ardía,*

eta berealaxe bigarren azentua. Beste bat ez du oso polita, neurtitzak adierazte ederra ez balu:

*ún nó sé qué que quedan balbuciendo.*

Bigarren eta irugarren zatibakarrerari mintzorra kendu ezker, biguintzen da. Oraindik ere *qué que que-* ori ez da belarri gozagarri; baiña barrungo itzari begiratu ezker, ezin esan olerki eder orren neurtitz ederrenetakoa ez danik.

Neurtitza nekagarri zaio belarri piñari, musikaz edo mintzoz, beti doiñu zurrunera, doiñu bakarrera erortzen baita. Neurtitzari, musika danez, diñot. Bestela, bai, neurtitzetan gogaia obeki lantzen da. Neurti-



tzak on dira oroitarazteko ere; baiñan ez da puntuaren bearrik ortarako ere, neurtitza ondo egiña badago. Mundu-gerriko deritzaionaren izarmordoak gogoratzeko, latinez ikasi nendun bertsoa, puntugabea, gogorazten dut beti: *Sunt aries, taurus...*

Izketa askatuan gertatzen diran mintza-iokorik ederrenak arturik ere, aiek beti berritu ezkeru, nekagarri gertatzen dira. Zenbat ederregoa da izketa askatuz elkar-izketa bat, galde-erantzuka! Berori egin ditekete neurtitzetan ere: galde-erantzuka iardun. Orrela, ariñago lizake neurtitza, ta asko irabaziko leuke musikaz.

Erderazko itz-neurketa indar-mintzorrak eta etenak egiten dute. Itz-neurkera gaizki egiña daukate: begi-iritziz, ez belarri-iritziz. Eta gu erdal-dunen atzetik goaz. Zer diño neurtitzak lau itz-zati, zortzi, amabi, ukan edo orien auzikote izan? Zergatik ez idatzi izketa askatuan bezala, eta ez lerro laburretan? Zergatik ahapaldia, eta onek lau lerro, sei, zortzi, amairu, gure bederatzi puntukoak bezala? Tuntuna ongi badoa, belarriari zer dio axolik. Irakurri bear dunarentzat bereizi bearra dago, bai; baiñan erabat edo dagokala, orrialde osoa betez, etenak bakandu litezke geixago izketa askatuan ez bezala.

Berrizaleek egiñalak egin dute erderaz neurtitz berriak asmatzen. Alperrik ari dira. Begientzako bakarra ari dira geienean. Nai duten ainiñ irauli dezatela. Bi neurtitz duzte oberenak, oietan banatzen baitira obekienik azentuak, batez ere bigarren maillakoak: zortzi zatiko eta amaikakoa. Besteak beti bater datoz eta astunago dira. Menendez y Pelayok alexandri-bertsoari nagia esan zion. Ba zedukan etxean astunagoa:

*a las armas, valientes astúres.*

Nork egari iru itz-zati oro punpetakoa, ahapaldi bakarrean ere?

### **Luis eta Ibane alderatuz**

Asi gaitezen itz-neurritik. Gezurra dirudina, bai izketa askatuan, bai neurtuan, Luisek alde aundia kentzen dio Ibaneri itz-urrenean. Gezurra dirudila diñot, Gaztela Zarrekoek itz-urren ohea baitute Berrikoek baiño, eta Ibane Gaztela Zarrekoa zan, eta Luis Berrikoa. Norbaitek esan balezait latin antzerago ioten deula Luisek, areago esanen diot Jesusen Tere-sak eta ez latin-kutsuz; bai, aurki, euskal-kutsuz.

Bi izkelgi artzen dudaz nik Espaiñian, itz-urrenari dagokionez: C ta CN (Gaztela Zaar-Berrietakoa). Bearbada, Erromako gudariek itz-urren berbera ekarri zuten. Zertatik bitaratze ori? Tere-sak euneko ogeita ama-

bost aldiz, batzutan berrogei ere bai, euskerazko itz-urrena darabil; Luisek geienez, ogeita amar aldiz. Menendez Valdesek eta Cervantesek asko itz-urren berriagoa dute. Cervantesek eta gure egunotako Perez de Ayala-lak berdintsua: euneko amabostetan, goiena iota. *Don Juan Manuel* irakurri nendun euneko ainbata ateratzearren, baiña gaurko itz-urrena du ark ere, nik irakurri argitaraldia gaurkoratua ez baldin bazegon, beintzat. Gaztela Zaarreko itz-urrena, batez ere *Refranero Primitivoko*a (ikus Menendez Valdes, *Diálogos de la Lengua*), euskeratik urbillago daukazu, eta M. Valdesek diñona, atxoak ardatzean ari zirala asmatua baldin bada, ezin izan latin ikasi zutelako. Ortaz, Bureban, orduko Euskalerrian, erderaz itzegiten asi ziralako ote? Euskal-itz-urrena latiña baiño latiñago baita.

Luisek, batzutan geitxo okertzen du itz-urren ori, latinoek ere beza-la. Ori ederki ipiñi ditekete argitan, zenbaka, galdera egiñez, eta erantzuer-a dagokiona dan ikusiz, gure Azkueren araua betetzen dunentz ikusita. Ez da olako neurririk Kikeronen itz-urrena ere noiz dagon ongi, noiz gaizki igarteko. Luisek geienetan euskerari dagokionago du Ibanek baiño. Zergatik onek Tere-sak baiñon exkaxago? Ontan Luis, neurtitzetan Espaiñian iztunik onena izan da, ta geiago ua lakorik ez etorriko gaztelarrak *Refranero Primitivoko* itz-urrenera biurtzen ez badira. Alaere Baltasar Gracianek asko kentzen die gaztelarri izketa askatuan, irixten baita itz-urren ego-kira 50% tara ere.

Edozein idatzi, galde-erantzuka ez dagona, betiko egiten ari dira galdeeri erantzuna bezala artzen da. Izketa ortan, betiko erantzuer-a ortan, itzak ixil-galdean bezala ipiñi ezkeru, ori da euskal-itz-urrena, ta diñote-nez, japonsarrena, turkoena ta latin zarrarena. Salustiok 97% aldiz du itz-urren euskalduna; Kaiserek 95% aldiz, eta Kikeronek 94% aldiz. Grekoa exkaxago zan: Platon ez da irixten 60% ra ere, galderak kentzen bazaizkio beintzat (auetan ez baita aldatzen itz-urrena); Demostenes irixten da 75% aldiz ere (*Filipica I*).

Egungo gaztelarrek ez dute sumatuko Luisen itz-urrenean euskal-dunak ainiñ edertasun. Belarri-entzua galdu dute. Guretzat gaur gaurko diran esaerak, aieri zar-usai dakarkie.

Zertzuk esaten ziguzten eskoletan *¡de sesenta minutos consta la hora!* esatean, itzak itzul-iraulka zeudela. Nola galdetzen, bada? — *¿De cuántos minutos consta la hora?* — Adi-iabe, aditzkizun, asmatu duten itz-urren ori irrigarri da. Ez du batere indarrik. Nundik etorri zera, zer ian duzu, Madrildik etorri naiz, ogia ian dut, etorri naiz Madrildik, nik ian dut ogia, erantzuten dute. Ez da or galdegiten zein etorri dan, ez zeiniek ian dun.



Gaztel-iturrena frantsesarekin berdintzen ari da. Guzia itzurrene-keta berean esan oi dute, mintzorra aldatu besterik egiten ez dutela:

nik iaten dut ogia (bestek ez)  
iaten dut nik ogia (ez dut uzten iateke)  
ogia iaten dut nik (ez besterik)

### Ele-iraulketa

Galdera oiñarri artu ezker, guk ez dugu ele-iraulketarik, oraingoek ala egozten badigute ere; ez duguz ipinten itzak aintzin-gibelka. Auek, bai, ondatzen dute itz-urrena, ta gureztat auek dute ele-iraulketa; frantsesek diñotenez, guk idien aurretik ipintzen omen dugu gurdia, ots, aien aldez-beste mintzatzen omen gira. Eta aiek, gure aldez-beste. Baiñan, nik bati esan nion: nor ote da oker ari dana? — Zuek, nik uste. Guk beti erabatera egiten dugu bidea. Naiz zutik, naiz buruz bera goazela, burubidez iokatzten gira; zuek, aldiz, bide erdia zutik egiten duzute ta beste erdia buruz beera, onela: *d'ou venez vous?* eta *de Paris viens-je* esan orde, *je viens de Paris*, diñozute, atzekoz aurrera. — *Vous avez raison*, esan zidan. Nolanai dala, auen bidemodua oso aula da, indar aundia kentzen dio esamañari, urar-dotzen du.

Esan dudana naikoa dute erdaldunek Gaztelani Zarra oraingoaren alderatzeko, batez ere atsotitz zarrenekin. Latitarrak ere baduzte utsak, esamañ geiegi biurrituz. Galderak erakusten digu ederki. Gaur euskaldunok, Azkueren aruari esker, Kikeronek baiñon obeki dakigu zein itzuren dagon biurritua.

Luis Leonek ere badu noizean bein itzurren ez-egokia. Nik arkitu diodan biurrena au du: *y de su esfera cuando / la cumbre toca altísimo subido / el sol...* Gaur onela esango leukete: *y cuando el sol... toca la cumbre de su esfera*. Eta Gaztelani Zarrez: *y cuando el sol... la cumbre toca* (¿qué toca?). Egia, bai, puntuak biurrituzten dio.

Gure itzurren au, adierazterik ederrena io diteke; beraz, Luisek Ibaní aunitz kentzen dio ortan. Zertan geiago? — Itzak eta izkiak begiratu ki aukeratzten. «Aurpegira egozten didate, diño, itzak beuren tokian ipinten dudazalako; gaztelaniz ongi egitea, erriak bezala egitea dala uste baitute. Ez dakite, ongi itzegitea burubidezko eginkizuna dala, zer esan eta nola esan. Erriak darabiltzan itzetatik onenik derizkionak aukeratzten ditu idaz-leak, aien mintzoari begiratzuz batzutan, izkiak ere bapanatuz, azkatuz,

neurtuz, ongi antolatuz, esaten dutena garbi adierazteko ez-ezen, mintzo ta ez tiro esateko».

Iraizean aipatu duguz *prado de bienandanza* eta *la del que huye del mundanal ruido*. Ontan Ibane ez da ain kontuzkoa. Badeuz, bai, ahapaldi biri-billak eta beteak. Ikus, esaterako, *Maite-leloan* 3 ta 4garren ahapaldiak: montes, riberas, flores, fieraz, fronteras; bosques, espesuras, verduras, vosotros. Metastasiok *os* biribil ori nai zuken italerarentzat. Iakiña, ez zan orien billa ibilliko, izkuntzak ala dakarrelako.

Aztertu dezagun labor Ibane. Iru zatitan eman zigun ber mistika-olerki guzia. Iruetatik bitan esn diteke olerki-mota ori ikast-olerti dala, eta ez mistika uts-utsa. Orrela Iainkoarekin alkarrerazi nai dun arimari ari zaio. Beraz, bi nortzu ageri dira eta bata bestearekin nasten ditu. *Gau illuñean*, «Maitea Laztan biurtua» ondo esana dauka Ibanek bere buruarengatik, baiñan ez irakasten ari zaionarengatik; oraindik lenbiziko asieran baitago. Izan ere, or diñon zentzu-galtzea ez da asiberriena baizik. Ez dut batere maite *Gauean* «*y todos mis sentidos suspendía*» bertso ori, batez ere, egungo lausokeriak ikusita. Olerkirako lillura aundiago du, baiña garbi diago lau tokitan Ibanek, olako aldi oriek etzaiezela gertatzen asiberri batzueri besteri, ta gaixo daudelako, edota beren griñak oso moteldurik ez daukatelako. Lau toki oriek irakurri nai baduzuz, auek dituzu: *Noche osc. esp.*, cap.I, 3; *Subida*, lib. III, cap. I, 6; *Cánt. esp.* Canción XIII, 6; *Cánt. esp.* XIV, XV, 18. Iainkoa animagana gogoz gogo ez-baiña gorputzaren bitartez ixurtzen dalako omen da ori, or diñona. Areago, mistikuen artean au ere gertatzen da: grazi berberaren berri zero emaiten, bitara adierazten dutela, beren kristau bizieraren ariora. Ago batean bi mingain luzten gisan. Ezaguten du S. Teresak eta onela diño: «*parece que me contradigo, pues hace catorce o quince años que lo escribí*». *Cuartas moradas* baño lenagoko iardunetan iatorri bat autematen du, «Iainkoagandiko atsegiñak» nondik datozten: Iainkoa urbil, alboan, ondoan sumatzetik alegia; baiña *Moradas*etan, Iainkoa bere barruan sortuko lizaion gisan. Ortarako dakar alderakizun polita, bi ur-askaena: batean, antxe berton iaiozten da ura; bestera, ur-bidetik dator, txurru egiñez, eta onela dira bakoitzak bere alegiñez erakarten ditun atsegiñak. Ikus, nai badituzu: *Vida*, XIV, 4; XV, 7; *Camino*, XXI, 2, XXI, 3; *Conceptos*, IV, 2; ib. IV, 4. Berrizkoak bapanatu ezker, dozenatik gora dira. Bein *junto cabe*, biak batean emaiten deuz.

Gero, *Maite-eresian*, «*no viviendo dondo vives*» ori ere bere buruarengatik ondo esana luke, baiñan ez irakasten ari zaionarengatik; bein ikutu orieta-ria iritxi ezker, ez baitu animak galarazten ainbesteraño olako ikuturik.



Bigarren, *Maiteloa*, irakas-olerki zalako eten bearra zedukan lenegogandik eta baita «*Entrándose ha la Esposa*» artatik, an elkartu baitziran maitez. Etzigun ala egin; baiñan artean, «Nora zaitut kuku» artatik asita laister, ontasunean aurrera bazoan ere, atsegaitza agertzen du lenbiziko amabi ahapaldietan. Gero bi maiteak erabat elkartu diranean, «*Entrádose ha*»tik azkenera ez da ageri atsekaitz ori. Baiña *Maitesugar* bizi deritzon leloa orren osagarri da, ta an berritortzen du zerura-nai ori.

Olerki onek (*Maiteloa*) obe luke azkeneko emezortzi ahapaldiak kendu baledioz, ederki bukatzen baita 22-garrenean. Luzeegi egiten da Oda bezala artu nai ukan ezker, ta atzartasuna xogorrazten du Maiteagandik. Olerki orrek badu batasuna azkeneko emezortzi ahapaldiak kendu baledioz, eta orduan ez dakit zein obetsiko nuken, Luisen *A la vida del cielo* ala *Cántico espiritual*. *Maitesugar* bizi du Ibanek olerki iatorra, biotz-eresi nasgabea. Alaere geiegiko idurikizun oriek ikas-mistika diralarik, ez dira bizi-mistika gertatzen irakurlearentzat.

Luis ala Ibane, bietan zein dan olerkaririk onena galdegin bageneza, neke da erantzuten. Ematekotan, nik Luisi emanen nioke aritz-abarra. Batez ere, bakoitzaren lana ikusita.

Erabat ohea al da? —Gauza batzutan, ez. Neurtitzez neurtitz eta ahapaldiz ahapaldi, bakarka artu ezker, Luis ez da irixten Donibaneren ondora, ta besterik iritxiko danik etzait iduri aurrera ere, dozenaka ahapaldietan.

Zertan agertu da, bada, ohea Luis? —Neurtitzen eta ahapaldien bildumak biribiltzen. Luisek, antziñakoen erara, oda deritzenak egin oi ditu; Ibanek ez, *Gau illumean* eta *Maitesugar bizian* bestetan. Olakoak egin baleuz, esker ohea emanen nioke. *Maiteresia* puskaki xamarra du, ta lirika ta ikastolerkia naste emaiten deuzalako, indar aundia kentzen dio.

Ibaneren alde ona au da, batez ere: azentuak obeki banatzea. Musikatzeke ere obeki datoz, mintzo-azentuak eta musika-azentuak ederki artzen baitute elkar, Luisenak ez-bezala.

Norbaitek esan dezake beti batago izanen dirala Ibaneren neurtitzak. Ez dago erabatasun ori kentzerik izkuntza berrietan; baiñan on baiño kalte geiago du Luisen bixikotasun orrek, azentuak okerrago banatzen baititu, edo urbillegi elkartzu, edota urrunegi bakanduz. Mintzorian banatzerik oberena, amaika silabadunetan, au da: 2'gn, 6'gn, eta 10'gntan; eta zazpikoetan, 2'gnean eta 6'gnean. Gaiñerako ioko guztietan, azentuak ez daude ain ongi banaturik, geiegi naiz gutxiegi diralako. Adibidez: *Él vá, y en pós dochósas*; lau azentu zazpi silabetan. Iakiña, ozen esatean, *va* orri gogortasuna kentzen zaio, doiñua kendu ezker; bestela bertso gogorra

da. *Prádo de bienandánza*: emen lau silaba daude dagozkala, azentu gabe. Ez da batere eder ori ere. Gurean ezin liteke mintzatu, iru aldi oro doiñua aldatu gabe. Ibanek ere baditu olakoak: *entre las azucénas olvidada*. bost silaba azentu gabe.

Beraz, Luisen bertsoa gogorrago ta astunago da berez. Baiña gaztela izkuntzari dagokiona da. Zertako ipiñi azentu geiago ta aldatsuagoak, gero irakurtekoan kendu bear ba'dira? Orregatik ontan ni Ibaneren alde-ara etortzen niza.

Luisek, aldiz, (ikus, esaterako, *La vida del cielo* ta *A la Ascensión*), asi ta buka Iesukristogandik zintzil bezala garamatzi, sogortu gabe, biotzean alako berotasun bat sortarazten digula. Lirikuz geiago da, beraz, eta mistikuz ere, niri barrunago sartzen zaida.

Ibane zorrotzegi epaitu dudala esanen didazu, irakurle. Etzait iduri. Ordaiñez aren alde beste zerbait ba'nesaizuke. Iñongo gizonen bertsoak baiño maiteago dudaz Ibanen zenbait zati, izketa askatuan, *Cántico*tik eta *Llamatik* artuak. Neretzat ez da olako bertsoak munduan, gizon soillarenik. Zoaz *Llamara*, ta an irakurrazu «*oh toque delicado*» aren iruzkiña. An buruz buru Iainko-Semearekin ari da («*oh tú, Verbo*»), ta alde batera bezala uzten deuz geiegiko idurikizun eguzkialdeko oriek. An, bai, irakurlearen barrua berotzen dula.

Mingarri da, beraz, Ibanek Luisek bezalako bildumak edo xortak ez egin izatea. Orduan, bai, nagusi zitekela. Oda bat badu taiu politekoa, *Un pastorico solo está penado*. Olako sailtxo bat egin ukan balu, irakurriago liteke Ibane.

### Mistiku ote Fray Luis?

Luis lirikuz geiago dala esan dizut, eta mistiku danez barrunago sartzen zaidala. Mistiku al da gero? Ez dezagun eletarik itzaz; nik esan nai dudana, Iainkorako bertsoetan geiago berotzen nauala Ibanek baiño.

Emen datorkigu Damaso Alonso, dudan ipinten edo ukatzen, Luisek ez zula ukan ikutu mistikurik. Bi uts egozten dioz: patxararik eza, asarrekor izatea, animako minkaiztasuna, ta asegitza ta asekitza.

Asarrekor zala? Berdin dio. Iainkoak, edozein gogaro dun gizonari ixuri oi dioz bere doaiak eta Luis baiño oituraz gaiztoago izan diran gizonak ukan dute ukitu ori. Orra Platon, okermin lotsagarri batzuen menpean egona, Maierak diñona egi bada, ta itxurak ala dira, Iainko-ukitu ori ukan zunik eziñ ukatu. Praile iakintsu bati ioan nintzaion bein, Platonen zati eder bat irakurtera, an ukitu orietako bat aurkitu nulakoan. Irakurri nion. Berrero irakurrerazi zidan astirogo, ta azkenik au esan: «Kristaurik





geienak ez gira ortara irixten». Ba-zitun praile onek bost liburu mistikaz idatziak. Griña itsusi ua gora bera (obe ukan ez balu), Iainkoa eskuzabal agertu zitzaion Platoni beure doaietan.

Badakigu Luis zartzaroan kristau bikaindu zala; otoitzean oso ekiña zala, beure burua motelarazten gogotik ari izan zala. Bestela, Anai-autsiengatik alakoak esanda (obe bearrez, S. Agustiñen bizi-araua ongi bete zedin), etzuten Erki-Buru egiñen, naski. *Zeruko bizia* azken aldera idatzia ditekete. *Kristoren Izenak* idatzi ondoren, beintzat, aietan (*Pastor*) ez baitakar «ez makil, ez abail».

Urrena, ukitu orrek, mistiku izaiteko, ez omen du utzi bear animagan asegaiztik eta asekaiztik, eta Luisek bai omen deuz. Nik aditzea dudanez, bestera dago egia. Irakurri ere badut iñoiz edo bein, minkaiztasun ori, betiko aberria erdi-ikusteak eta atzerri ontan oraindik egon-berrak emaiten dun gazi-geza dala, ta ori sumatzen ez bada, iduritu txarra artzekoa dala ukitu ortaz. Mundu ontan, Iainko-ikuslerik bikaiñena ere, beti asegaizt gelditu oi da, berela beste bizitzara egan ezin egin dulako. Or daukagu S. Pablo, bat aiña mistiku. Ukitu oriek ukan ondoren, zer diño? — «Askatu nadin gorputz ontatik, Kristorekin gerta nadin».

Ez dakit Ibanerena ala Teresarena ote dan (bieri egotzi oi zaie) arako «bizi naiz, ez nigan biziz». Ori esan duna Iesukristo bizi du; Iesukristorekin bat egiña dago. Eta ez badago, gezur andi da, olerkiaren beste ainbeste bezala. Ta egi baldin bada, zergatik eratxikitzen ere «ez iltzeak iltzear nauka?» Il egin nai emen ere, obeki esan, betiko bizira ioan nai, Kristo ikusi nai ater-unerik gabe. Orobat *Maitesugar biziaz* aiatu dana.

Beraz, eta ondarrean, Luis Iainkorako olerkietan atsegaitz ageri bada ere, eziñ esan orregatik bakarragatik, ukitu mistiku ori ukan ez zunik. Ukan ote zun, gero? — Olerkietan ez da errez erabakitzen. D. Alonsori baietz iduri zaio, *Salinas* opa ukan zion *Oda* artan, eta ez *Zeruko bizian*. Niri, ostera, alde bestea. Onak askoz geiago berotzen nau. Irakurri bedi era berean *Kristoren Izenetan* daukan adierazpide berbera (*Pastor*), eta baietz esan nezake. Baiñan, *Esposo* deritzaion iardun artan, badu animaren gaiñezkaldi bat, oso neke iduri baitzait gertatu etzaionak Iainko-ukituaz alako aztarren zeatzak emaita. Alderakizun baten bidez adierazten du Luisek Iainkoak animari egiten dion ikutua. Iainkoa su bezala egiten du, ta anima egur eze bezala; «Suak erasoten dio subillari, eta berotu ala, se geiago artzeko gai egiten du. Ta su artu ala, kea gora asten zaio, noizean bein tiro batzuk boteaz, ur-negarra dariola, ta burruka ontan, sua gero ta indartzenago da, ta kea gar biurtzen bat-batean; baiña garra berela itzali oi da, ta berela berriro itzali, iru ta lau aldiz. Azkenean, suak subil osoa

erasoten dula, ta nagusi zaiola, guzia batean ateratzen da gar egiñik, eta garrak bonbon subilla bizkor bildurik, egurra su dirudila uzten du.

»Ala berean, Iainkoa animari urbiltzen eta elkartzen zaionean, eta bere ezitasuna emiten dionean, dastatu-ala geiago opa du, ta griña onekin gaiago egiten da atsartzeko, ta gero ta geiago asetzen da, ta atsegiñ au poliki poliki geitzen danean, lenbizi ikara eragiten dio anima guziari, ta gerora samurrerazten. Eta tarteka zizpuru samur batzuk entzuten dira, ta ezarian, malko txit gozoak iarioten dira oarkabe. Aurrera, bat-batean pizten da maitez ta argiz egindako gar antzeko bat, eta bereala itzaltzen da, ta negar-zotiña berritzen; pizten da beste ez dakit nolako argitasun bat, eta negar gozoa ugariago da. Ola dabilla anima, beregandik erabat ateratzen da, eta bere buruz gaiñetik igorik, eta bere barruan eziñ egonik, maitasun samurra dario, ta alde guzietatik urtzen da, ta ez du aditzen, ez esaten, olako itzak besterik: argi, maite, bizi, atsedean oso, bazterrik ez duzun edertasun, on neurrigabe ta txit ezti, urtu nadi guzia ta Zu biur nadi, launa.

Iaunak! Au ukitu mistikua ez bada, ta Luisek bere buruagan sumatua, ez dakit nik zer dan ukitu ori. Iñon diran aztarrenak eta zantzuak emaiten ditu, beintzat. Asi Moisesengandik Loiolako Iñazioganaiño, ukitu ori sumatu dutenak berdintsu mintza oi dira. Eta zeñek asmatu du Luisek bezain ongi adierazten?

Azkenik, Luisek berak ere aitortu omen, etzula olako ukiturik ukan beregan. Ez dio axolik. Badira bat baiño geiago, ukitu orietakoak ukan eta konturatu ez direnak. Gure Aita Kardaberaz bizitzan au esaten da: bi urte egon zala ukitu orietaz baitaratu gabe, edo zer ziran iakin gabe; baiñan animako gurasoak, Santa Teresaren olako leku irakur zezala agindu zionean, orduan ezagutu omen zun, arek ere ukan zitula (*Ardores de un serafin*, I, 115).

Gerta ere zedioken, orduko Ikasgu nagusietan aburu iakiña baitzan, otoitz aundira sartzeko, lenagotik ezagubideak illunbean gelditu bearrak zirala, ta Luisek olakorik beregan sumatu ez, eta ikutu egiazkorik ukan zunik ez siñestea.

### Azken oarra

Luzetxo doa Sarrera au, olerkari ta mistikuengaz aburuka zabaldu nadin, olako lanetan egiñ oi dana, ez beti zuzen ere. Bi idazle umo autatuko ditut nere gogaieri leku emaita: H. Bremond Apaiza, ta J. Maritain. Lenengoak, *La poésie et la première* dalako liburuan, Pascalen esangune batek oiñarri arturik, biotzak baditu arrazoi, arrazoi iritxi ez detzakenenak,



beste goragoko ezagubide bat asmatzen du: mistikuetan *la pointe fine*, animaren erpiña; olerkarietan ikusbegia. Begira, ordea, biotzaldiekin, batzutan egi ateratzen badira, besteetan gezurrezkoak baitira.

Ez dugu entzin bear osotara mistikuen ikuskari batzuetaz. Iainkoagandik badira ere, batzutan gezur gertatu baitira, Iainkoak burutarazia oker artu zutelako. Igarleren bat ere izan da, eta artaz mintzo da Donibane Gurutz, Iainkoak idaroki diona oker artu duna.

Esker ona eman bear diegu, bai, naiz olerkariari, naiz mistikuari; baiñan ez duguz Iainkoetsi bear. Mistikuen begi-kaldu ortaz galdegin ere da, orren bidez mistikuak geiago ikusten ote dun Iainkoaz siñest-egiak diotsona baiño. Ez, iñolaz ere; geienik egiten duna, ta ez da gutxi, egi ori beregan bizi egitea du; au da, mistikuak ez du beure adimenez ikusten adimen orrek fedeak argiturik esaten diona baiño. Gaiñera, mistikuaren ikuste ori ez da begiz ikustea, itza zorrotz artu ezkeror; ikus bezala egitea da, S. Tomasek esan zuna.

Ez naiz asiko, Moisesek eta S. Paulok, esate baterako, mundu onatan irazezan bederik Iainkoa zer-dana ikusi ote zuten. Aitortu ditek, nere ustez, mistikuak ez dula lekutzen siñismena, au da, gogai soilla, iainkoarekiko artu-emanetan. Iainko-ikuste au onela itzez muga ditek: «berekin gauzakan Iainkoagana ernai ta maitez egoitea, siñismena argi dugula».

Maritainek gaiñera «egite eragiñak» aipatzen ditu, bestek aragiñak; baiñan auk ere ez dira guziak bestek eragiñak, ikuste ori ere egiz ikustea ez dan bezala. Iainko-ikuste ortan lilluratu ditek, *Bosgarren Egonlekuetan* dagona ere. Nola erantzi guk gure gogaia noizko-nongoetatik *Iainkoaren betieran sartzeko*, Tertulianok ziñona? Seguruago deritzat S. Agustiñen irakatsia, au da, iñon ez dula Iankorik arkitzen bere oroimenaz landa. Iainkoaz oroitu ta artan atsedan, naiko da, nolabaiteko ikuskari oriek alde batera utzita, naiz adimeneko ditezela. Ederki diño Bibliak: «Gogora nendun Iainkoa, ta atsegiñ artu».

Otoitzaldian egiñ oriek oro «bestek eragiñak» balira, kristau zintzok ez leuke batere meriturik. Gutxienik esker ona eman bear dio Iainkoari, ta bere aldetik maitatu.

Gure egunetan ioera aundia dago, batez ere olerkariak geiegi gores-tea. Obeki esan, beurak goresen dute beuren burua, besterik baiño gei-gauz bailiran. Bakar batzuek leku, milla xoxokeri asmatzen dute, berak beurrak ere eziñ ulertuzkoak. Obe lizake olako oriek izaro galdu batera baztarrerazi litezen, an elkar goreski dezaten, elkarren bekaitzak uzten badie beintzat. Apalago izan bear lukete, mistiku iatorren antzera.

Ia, bada, gure ondorengo gazteok! Aztertu ongi gure euskerak daukan adierazte alderdiak. Ez egiñ muziñ arau-bide zearoari. Ar zazute bat zerontzat zerbait lotzen zautena, askorik ez bada ere, zeuren buruak ongi ezteko. Iarrai Gazteluri, ta zabaldu bideak oraino, euskal-olertia guziok nai dugun erpiñeraiño igo dedin.

## ITZAK NOLA NEURTU

Ontan ez gatoz erara Gaztelu ta ni. Nire ustez, bultzaratxo esaten zaion bide-modu ori ez dagokio euskerari, ez baitu indar-azentu nabarmenik. Niretzat euskeraz etena aski da neurtizari beure ariurria emaiteko. Izan ere zer da igikera edo tuntuna? Etenak mugatzen du mintza-neurrien sailla, neurri ori oso zurruna ez izanik ere. Izketa neurrigabeen ere, aiserako azentua emaiten dugu beti; azken-silaban, ordea, berez du euskerak mintzo biribillagoa, ta ez du eskatzen indarrrik eman dadion. Au aski da, nire aburuz. Ongi autemaiten du Kikeronek etengabeen ez dagola tuntuak, eta norbaitek beñere etengabeko arnasa baleu, itsusi leukela atergabe mintzatzea. Beraz, tuntuak etena du doairik bearrena. Badut adiskide bat, izketan oso nekagarria, ez baitu arnasa berritzen, osotara bukatu zaion arte.

Izkuntza berriekin nasirik, nekez egiten dugu bertso bat, esateko balio dunik, ozenki esateko, alegia. *Logedicas* esan oi ziotena, batez ere Askelpiadelene ederki datorrigu, naiz bakarrik, naiz Alkaiurenarekin naste. Adema Zaldubiren *Azken-afaria* ezkeror, neurkera ortan saiatu gira zerbait. Alaere bertsoa beti bertso, ots, beti batera erorten dala.

## ITZULKIZUNAK

Bi itz itzulkizunengaz. Xoragarri zaizkit niri, ta ala zaizkiekela, nik uste, gaiñekoeri. Zearo zintzo egiñak, eta ortatik asi bear da. Oso tokigune gutxitan ez dira irixten iatorrizkora. Gero adieraziko dugu. Itzultzaleak ez du errua beure; izkuntza da irixten ez dana, oraindik ez baitaukagu ongi egiña gauza guzietarako.

Erabat esan, iatorrizkoa berdintzen du eskuarki, ta ez bakan ere, kentzen dio, gure adierazte ugariari ta gure mintzo-mintxoari esker. Gazteluk ezagutzen deuz adierazpide guzi oriek, eta aietaz ongi baliatzen da.



Esangunea kutun dauka, ta musikari begiratur, ahapaldi bikain bikaiñak ateratzen deuz. Damurik, ez deu utzi alde batera puntua. Erdal lirari iarraituaz, geitxo lotzen zaio, azta arindu badio ere. Bein osotara utzi du puntua, *Virgen que el sol más pura* artan. Olerki au itzul-errea bada ere, au itzuli du aulenik, euskera ez baitago egiña Andere Mariren doaiak azalzteko, ari deiak egiteko.

Orain eman dezadan olerki bakoitzarengaz iritzitxoa:

*Bakarraldia*.— Zearo ongi itzulia dago. Ahapaldi bat bakarria ez da arkituko, iatorrizkoa baiñon exkaxago idurituko danik. Itz-urrenean gureak kentzen dio, ta batez ere mintxotasunean. Lerro batean bakarrian ez da irixten iatorrizkora: *la del que huye del mundanal ruido*, iru *l* ta iru *n* oieri esker.

*Prantzisko Salinasi*.— Aurrekoa bezain zeatz itzulia. Auteman beza irakurleak 4, 5, 8'garren ahapaldiak, bereiziki mintxoak.

*Zeruko bizia*.— Itzulkizun onek goiena ioten du. Ez dut ezagutzen itzulkizunik, aitorrizkoagandik oin garai ateratzen danik. Lerro batean ez da irixten, *prado de bienandanza*. Alare ikus bedi, zoruntasun-belardi urbiltzen zaio mintxoan, bi *n*, *l* bat eta *r* baititu onek ere. Itzulkizun au «eziña garaitua» esan ledi.

*Diego Olarteri*.— Gau narea. Beste itzuliengaz erabat esan duguna esan diteke; baiñan auteman bediz 2, 8, 10, 14, 16'garren ahapaldiak.

*Taioren Iragarkizuna*.— Aukera ditezke 7, 9, 10, 15'garren ahapaldiak; 13'garrena ez diteke indar osoan euskerara biurtu, ez baitugu ioka-itx elebakarrik. Alaere aditzak ixilduz, erdi-aditz, erdi-aditzonod, eiagoraen bitartez, diteken bezain ongi itzuli digu.

*Bakardiari*.— Olerki onek ez du bear aiña izen on Luisen olerkietan. Itzulkizunak lagundu dezake iatorrizkoa obeki aztertzen. Ez dakit zeintzuk ahapaldi aukeratu. Bitez 1, 2, 5, 8, 9 ta 12'garrenak.

*Pilipe Ruizi*.— Beti lena berriz esan gabe, begira 2, 3, 5, 7, 8, 9 ta 10'garrenak.

*Kristo zerura*.— Olerki au bere lekutik aterea dirudi, Liburu Sainduak *gaudentes* itzuli zirala esaten baitu: pozetan. Baiñan beste oiñarri bat eman dion ezkeron, ortan gauzak dakarrena da. Ahapaldirik ez aukeratzearren, guzia kopiatu liteke.

Zenbait egun aurretik, Donibane Gurutzen itzulkizunetzaz eskuz jarritako bere iritzia galdu edo oarkabe ausi egin zulata, olaxe joan zitzai-gun ustekabe gure «Orixe». Gure ele-maisu zanaren *ilburuko lana* esan diteken au neretzat egin zulako, nere esker ona azaldu bearrean natzaio. Bestalde, Fray Luisen *Joan Grial Jakitunari* oda ta Donibane Gurutzen *Maite-sugar biziren* ondotik datozten kopl-saillak, «Orixe» il ezkeroztik itzuliak dira. (Egillearen oarra).

#### «ORIXE»K (G.B.)



## FRAY LUIS LEON

## NOR IZAN ZAN FRAY LUIS LEON

### Bizitza

Oraingo kritikak agirian jarri denez, Fray Luis leon ez omen zan maiz bere burua aiñako izan oi. Bañan ari buruz, beste edozeñi bezela, batez ere bere bizialdi garaienak ditu kondairak aintzat artzen; izan ere, auetan nabari baita, egite aldian, aren errotiko jatortasuna. Egunean eguneango neke ta goraberaen barna, jator bizi izandako aldiuneak dira iraungarri, auetan erdiets al izaten duelako norberak bere gizabetearen neurri doia.

Au dala-ta, Fray luis leonek bere idaztiak eta, batez ere, bere olerkiak ditu —olerkari egiñ-egiña danez— agirikorik nabari ta siñesgarrien. Eta auetan, ain zuzen, alako barne-eztitasuna, arte ona ta eratasuna nabari da; izan ere, ortixetik du aren idazkerak duen aipua. Egia esan, irizpide au bearbada azalekoegia ta ergel samarra dirudi; areago, ordea, idazlearen izakeran alako sentikizun ezberdiñ auteman dituztela-ta, aren idazkera ta olertitza idurizko jotzen dutenena.

Ondo mena ta jaso degu Fray Luis elerti-doaiez; orratik ere itzuri dio oldezko barnegiro aizun eta erosoan jalkiteari; aitzitik, muiñ-muiñetiko azalpen sendo ta egiñaren bidez, bere barne-egia damaigu beti.

Dakiguna, olertitza ain eintsu ta aratz orren pean, betiko erasoaldi mingarrien menpean zegoen baten ayurria nabari zaigu: egitura eder orren arrobi landugabea, loratze ain joriaren sustraitze illuna. Berladiko ekiñaldiz erdiets al izan zun Fray Luisek erabidea ta batasuna, itz batean, pake-billa egiñ oi dan alegiña bezin gizalegezko ekitea izan zun bizitza osoa.

Berez erkiña ta gaizpera, mudurria ta griñatsua zan, eta bere izakerari ez zegokion ingurunean bizitzea gerta izan zitzaion. Ikasgu-azterkizunak, eskolastikoen etiketak, praileen arteko lixkarrak, klaustro-billerak, letradunen nor-geiagoak, iritzien egokiezak, alkar arteko gaitzesteak, beti durduri zeukaten Fray Luis eta samin da odolgaitz biurto zuten.

Ba zan garai artan, Salamankako Ikasgu nagusian, naiko lixkar zir-tzillu ta irol, batetik jokabide berri baten aldeko eta bestetik zartzale zira irakasleen artean. Lenengoen alderdiko, Brozastarra, Martinez Cantalapiedra, Gaspar Grajal da Fray Luis Leon ziran, auen aurrezko berri euren lagu teologo geienak; auetan bere zalekeriaz nabarmenik Leon Castro,



gerkera-irakaslea. Alderdikeri aietxek au ekarri zuten ondoretzat: Brozas-tarra ez beste guziak auzipe erori ziran Inkisiziopean.

Ia bost urteko espetxe-aldian beraldiko naigabe eraman bear izan zitun Fray Luisek, maiz gaixo, barne-oñazez beti, baña iñoiz ez bezela bulartsu azaldu zun bere burua. Atera zan azkenean andik, barkamen ordain izan zun erabaki baten bidez. Atera, bai, atera zan noizpait ere, baña berriro lengo auziketa, azterkizun eta lixkarren artera egin zuen eta, berriz ere, auzipe erori; etzan ainbesteko izan bigarren au, eta etzion aren bizitzari ozka aundirik egin.

Bere bizitzaren azken-aldia eztixegoa ta artetsuagoa izan zan: itzuri die letradunen lixkarrei; Teresa Ama lurrean ez ezagutu ta ez ikusi arren, aringarri zaio bere jaiera aren jarraileen artean esku-aldatzea; barerik eta ilduraz adierazten ditu ere Joben naigabeak.

Ba dirudi bere izakeraren alde burrukalaria ta griñatsu onek buru ematen diola olerkietan nabari duen gozotasun, eztitasun eta narotasunari. Alaz ere, bere gizakeraren bi aldeok alkar artu ta eutsi egiten diote, eta bien arteko elkartean datza gure olerkariaren bizikera-untzea. Ori dala bide, sentikizun ain jori ta landuak bere olerkitzako zitu bikain-guriak sortu al izan zitun. Ain zuzen, bere bizitzako goraberaen gaindik, beste aldiune ere izan zitun Fray Luisek, geienak alegia, barne-bizitzarekikoak, egaldun poesi mamitu ziranak.

Labur esan, Fray Luisen barne-izakerak, bere olerti-emaitz-ispilluan ain argi ta garbi ager danak, ezta iñundik ere aren agiriko izakera ukatzen; aitzitik, uraxe du egiazko bizitza, itxuraz ez-berdin diran bi alde oien bildune egokia. Eta barne-iturri ortatik jarion olertitzak, giza-giro naas-maas orren azalpen gorenak, beti ere norberaren biotzean alako pilpira ideko bat ernaraz dezake.

### Idatziak

Fray Luisen idazlana, itzuraz laino baña oi ez bezela orapillatsua da. Bertan iru kultura aundien ekarria biltzen da: hebertarra, aitorra ta kristauarra, alegia. Fray Luis izan zan, alde berriko joeraren arabera, kultura zar-berrien arteko elkartearen eragilletako bat.

Fray Luisengatik «españiar Orati» dala esan oi da, baita «hebertar animadun» izan zala ere. Baña Fray Luisen Bibliarekiko jakite guzia, aitorezko ta filosofi ta teoloji kultura bezela, ezta ainbateko aren egintzan, lanerako gai ta eginbide baizik, ez ordea bere senaren egiazko ta jatorrizko azalpena.

Ba ziran garai artan Idazteun-jakitez eragiten zutenak —Cano, Suarez, Arias Montano ta Brozastarra, adibidez—; bañan ezin diteke beste iñorengatik esan, ura bezela Iragarleen arimakide izan zanik, ez eta ura bezela herbetar kulturaren gizabidea ta iraunkorra ain sakon aditzera irixi izan zanik ere. Burubide orretxek daragio iragankorraz ta gertarikoaz txauenik diran liburuak aukeratzen (*Leloen Leloa*, *Emazte Betegiña*, *Joben Liburua*); ele-jakitun arauz ez-baña gizabete arauz alboratzen da Bibliara, eta bertan erabat illa ta joana baño beti bizi ta oraingoko dana billatzen du.

Bibliagandiko aztarren nabari au, ordea, ezta Fray Luisen egintzan greziar ta latindar aitorek irarritakoa bezanbat. Auen guzien artean Orati du lorratzik sakonena egin ziona, bere olertitzan ezezik, bere egintza osoan barna ere; alaere, ezta ain errex erabakitzea noren senari zor dion geiago, Oratirenari ala Salmugillearenari. Esan ditekena, Oratigandiko kutsu ain nabari au Fray Luisen olertigintzan len-aruari dagokila ausaz, eta bere elduaroan eta betetasunean berriz erabateko kristautar adierazkizun berri bat —Oratik sumatu ere ezezakena— erantsi ziola.

Platonen ere sakonki eragin zion Fray Luisen gogamenari, naiz artez, naiz Kikeronen, platoniar berrien eta Eliz-Gurasoen bitartez. Ontan ere ezta berezienik aitorezko jakitearen berria, errotiko adirazte sakona baño, ez kultura baten edesti arauzko ondorekoa, kultura ura sortarazi izan zuen barne-joeraren eskuratzea baño.

Oratik neurri, sotiltasun eta garaitasun sentikizuna du ezaupide, Fray Luisek ain bere-bere egin zuena. Eta onen egintza osoan agirienik nabari dana, bere nortasun-santikizuna du, ez ordea azalkeatik sortu oi dana, barne-izatek, gauza bakoitzen bizi-eragieratik datorrena baizik. Bere landarako oarmena ere, gauaro narearekikoa, doñuarekikoa, zuzenbidezko giza-gogartarekikoa ta zerutar biziarekikoa bezela, Fray Luisek ain jator ta biziro jalki oi ditun gaiak oro, Platonengandiko jakite-mami iraunkorren sorburu dan errotiko sentimenari dagozkio.

Eragipen auetaz gañera, Fray Luisen gogamena kristautasun garbienen errotua dago, Elizako Gurasoengandik dator Fray Luisen senaren guna, bere Bibliarekiko jakitea adierazle berriagoetan oñarritua baldin badago ere.

Fray Luis Leon ordea olerkari da oroz gain, eta bere egintzaren jaso edo balioa erti ta elerti arauzko da aurrenik. Bere olermena, beste zenbait lekutan zatika adierazia, *Kristoren Izenetan* eman zigun laburki batean. Ain zuzen ere, idazti onen burutik bururako batasuna ta adierazpidea olerkien argitan soilki nabari diteke. Fray Luisek berak, bere olerkiak gaztaroan eta



oraindik aur samar zalarik eskuetatik edo aletu zitzaizkiola eta auek atontzen gañerako eginbearrak aztutzerañoko betarik baizik etzulea artu esan arren, alaere eziñ uka beraietan bere animako zer garaiena ta sakonena ustu zigunik; egiñ ere, berberak aitortzen digunez, bere «izarraren leraz» egin baitzitun. Auetatik aunitz, jazarpen eta zorigaitz aldiko beroz eta oñazez sortuak ditu. Bere olerkietan eman zizikigun laburki bere gogaien eta oarmenaren guna, bere gogamenaren gai jatorrak, gero itz lauz ere edatuago jalki zitunak berak.

Eta azkenik, Fray Luis Leonek berak zituen asmatu ta landu bere mintzaera ta esangune jatorrak; bera izan zan, Gaztelaniako elerti-izkera berria sortu izan zaneko alegiñetan, leyarazlerik garaienetako ta eragikorrenetako bat. Etzun iñork berak bezela asmoz zaindu ta egitez burutu orduko elburu berria, ots, erri-izkuntzak zaarraren elerti-maillaraño jaso egitekoa, gogamen berri baten esapide jator biur zitezen. Ontan ere bere aldiko seme agertzen zaigu Fray Luis Leon, eta Espaiñiako Pizkundearoan gizabetezko eredurik garaiena bezela.

## «LIRA» FRAY LUISENGAN

Pizkundearoa, petrarkar olertikerari buru egiñik, aapaldi neurridunago, oratiarrago bat billatzen saiatu zan, eta «lira» dalakoa erdietsi ere. Garzilaso ekarri zun Españara, Bernartar Tasso, Torkuatoren aita zanagandik artuta. Bein bakarrik erabili zun, ots, *Gnidoren Lorean*, bañan ondore aundiko izango zan gertari au gaztel-olertitzan.

Fray Luis Leonek beste zenbait «lira» mota ere ba darabilzki (AbAb, aBaB, aBaBcC, aBbAcC, aBaBbcC), baña berekiko oda geienetan aBabB tankerakoa aukeratzen du. Onen ondoren, Donibane Gurutzak ere aapaldi orixe darabil bere *Gau Illuna* ta *Barne-Eresi* olerkietan, naiz *Maite-sugar bizirako* sei neurtizdun aapaldia auta izan (abCabC). «Lira»k, beraz, XVI<sup>gn.</sup> mendeko iru olerkari aundienen, alegia, Garzilaso, Fray Luis ta Donibane Gurutzen bitartez artu zitun lurak Españan.

Damaso Alonsok diñonez, naiz B. Tassori, Garzilasori edo Fray Luis Leoni, oratiarrak irurak, Oratiren aldakera azkarrentzat oda egokia zeritzaien «lira», berebiziko eredu jarraibidearen araberako neurkera, araua erdiesteko. Gogoemazu nolakoa zan —*Epodæta*z landa— Oratiren aapaldien egitura, ots, safiku, alkaiku ta bitariko askelepiarra; eta auek guziak lau neurtizdun dira. Ain zuzen ere, bost neurtitzeko aapaldi onek, «lira»k alegia, giartsu oi du esakuntza, ta neurtitza ere, bilbil eginda, gogaiez jori-jori elika oi da.

Alaere, Fray Luisen odaren eskupe osoa ez datza aapalditzat «lira» dulakoan, atalkin auetzaz olertitza nola osatzen dunean, bata besteak guziarekin duten ar-emanetan baizik. Petrarkatar olertikerak aapaldien arteko ar-emana batez ere adimen arauz lotzen badu, ez ordea Fray Luisen odak. Emen beste lege bati dogokio aapaldien jarraiketa, naiz aurrezka, naiz aldakera ta mailka egokiz, beti ain bizi, ain eginkor.

Ar ditzagun bi adibide:

### «Tajoren iragarkizuna»

Bedi lenena «Tajoren iragarkizuna» deritzan oda. Fray Luisen onenetakoa ez izan arren, Oratienean antzekoena baita, ta egituraz eta aapaldien albañuz ertilan egiñ-egiña.

Ezaguna da elestia. Errodrigo, godotar errege azkenak, indarrez goza izan omen zun Kaba anderaurena. Onen aita Julen kondeak, men-



dekuz, mairutarrei otsegin zien, eta auek Gibraltar itxas-ataka alden-beste igaro ta Guadaleteko gudaldian bisigotarren jaurogoa birrindu ere.

Odan, ba dakusa ibaiak bere ertzean Errodrigo erregea, Kabaren besotan, ta lizunkeri ori dala bide arabitarrek España azpiratuko dutela iragartzen dio.

Urratsean dabil Fray Luis. Izan ere Oratik, bere *Nereiren Irargarian*, Erromako jatorri-ipui zarrak bide emanik, olako gertakizun bat itxuratu zun Troyako zarraskiari buruz. Nerei itxas-jainkoak ba dakusa itxasoz nola daraman Paris troyatarrak ebatsita, greziar Elene, eta arrapaketa orrengatik grekoek Troya uria ondatuko dutela iragartzen dio. Ezin diteke idekoago gerta.

Olerki-egiturari dagokionez, auteman geneza, adibidez, 2'gn, aapaldiko ele-iraulketa (*hipébaton*), alegia aditza galdekizunen tartean ezarriz; aapaldi bereko elkarkien-berriztea (*polisindeton*), edota 4'gn, 8'gn eta 13'gneko elkarki-kentzea (*asindeton*); 9'gn eta 12'gnean berriz ele-gainketa (*enjambement*). Bañan aapaldien urrenketari ematen dion ibilkerari oartzea ajola geiago dio.

Lenengo aapaldia ondoren, gertaeraren begitaratzea dana, olerki osoa iragarkizun da. 2, 3 ta 4'gn aapaldiak mailka datoz, eta 5'gna geldiu-ne orotarazle bat da, bertan olerkariak iberitar ingurune guzira edatzen ere ditu beltzuraz begiak, zorigaitza datorkiolako. Baña, berela, asierako «ba» gertaltitzaz bigarren aapaldiko ariari eltzen dio berriro. Orain ikuspegia askozaz orapillotsuago ta biziago izango da.

7, 8, 9 ta 10'gn aapaldietan sen aundiko azaltzen zaigu Fray Luis, jarraibideari aldegiñik. Oda erdiko ikuspegi ain igikor, azkar ta bizi onek, espaide-gaitasunez goiena jotzen du gaztel-olertitzan. 10'gn aapaldia goraldi (*dimax*) burua da. 11'gn aapaldia, zurruna, larria, biribilla da. Ustekabeko aldakeraz, ibaiak aserre oles egiten dio erregeari, bere zorokeria utzita iskilluak artu ditzan (12). Eta bertan 13'gn aapaldi arrigarria, ain eragille ta leyakor. Eta oraindik goraldi-erpiñean, eiagorazko aapaldi bat (14'gna): beraldiaren (*antidimax*) asiera da.

15'gn aapaldian, Tajo aitaren aoz, gizakien oñazengatik ezaxol, itxaso aldera emaro darion Guadalkibir ibaiari dagokio olerkaria. Azkeneko aapaldiak (16'gna), Oratiren azkenarekin bat datorrela, alabearrezko biotz-ikara sartzen digu, «ai» ta «ene aberri kutun» oietaz bakarrik apur bat biguntzen dalarik. Eztago ezer besterik erantsi bearrik: ezpain-berdin da barnegiro-ontzia.

Beraldiaren eskupea aitor-aitorra da, diño D. Alonsok. Zarata baño gutxitzea nola eragikorrago dan jatzea dana. Oratik bere-bere dun eskupea; baita Fray Luisek ere.

### «Bakarraldia»

Bigarren adibide au ere, ain urbildik ez arren, Oratiren *Beatus ille* odaren antzeko da. Egituraz, alegia; gogamena berriz eztu azaleko loturaz eioa;

banan-banan eta tipil datoz atalak, eta auen albañua irakurlearen adime-nean eotzen da: kezkaz bizi da mundua; nik pakea nai det; beraz, mundutik alde biziko naiz.

Laugarren aapaldia ondoren, tupustez, Izadira itzultzen da, 5'gna; 6'gn eta 7'gnean, mendira, iturrira, ibaira iges egitearen aldeak azaltzen ditu, eta 8'gnean olako alde onak gozatzea erabakitzen.

Bereala, azaleko loturarik gabe, baratzaren azalkizun ezaguna lau aapaldietan (9, 10, 11 ta 12'gnak): bat-batean eguzkitara zabaltzen dan leioa da, eguratsez ain goxo. Eta berriro, ezustez, baratz-ikuspegia suntzitzen eta, onen orde, galdu-zorian dagon ontzi baten irudia, ekaizpean (13 ta 14'gnak). Nai gabe, zinemako irudien alkarketa-egitura datorkigu burura. Odaren goraldi-goiena da.

Iru azken-aapaldiak (15, 16 ta 17'gnak), beraldi dira; bidez arren, berriro ere ba dakar begitara naste ta guduko ikuskizuna. Oar zaiozu azkeneko aapaldiaren sotiltasunari, aurreko neurtitza berrirotzean («Itzalpean etzanda»).

Au du berarizko Fray Luisek, azalkuntzari dagokionez, bere olertigintza geiñean: goraldi-beraldien igidurako joera.

### «Salinasi» Oda

Eta orain Fray Luisen ertiaren barne-itzari edo giroari bagagozki, ondo korapillotsu dala esan bear, bai sustraiz, bai asmoz: mezuaz ere bere-bere degu. Olerti bizi, sentikor, leyatsua berarena, naretasun eta erakundearen adierazle arrigarria.

Bere ereduakin, ots, Oratirekin alkar jo bageneza, txastamen ideko arki oi degu bietan; baña gogamenari dagokionez, Fray Luisek askoz eragiten du Orati. D. Alonsok ain zuzen diñonez: Bai txindarra latindar olerkiaren gizabidezko neurridun mundua! Bai bera bezelako biotz sakon, orotariko susno-ekarle, Fray Luisena! Onen olertigintza alako igesgura ezikaitza, burrukari itzuri-egin nai bizia nabari zaigu.



Gurari ori garbienik adierazten digun oda, bere adiskide Salinas, ereslari itsu bikaiñari eskeñi ziona da. Oda au bear bezela aditzeko, asieratik pitagoritarren burutapen-aztarnetan errotzen dala jakin bear: anima, alegia, lendanik erakunde izan eta, zigor baten pean edo, soñarekin uztarkide gerta izan zala ta gorputzean, illobi batean edo kokatua dagola; ortik ere *sôma*, *sêma*, «soñia», «illobi», grekoen esana; edota, alako espetxe batean ere datzala gizona. Pitagoritarrek anima garbitzeko musika erabili oi zutela ere, gorputza garbitzeko sendagarria erabili oi danez.

Zein musika? Zerutar lekune edo gurpil edo oboetarikoa, alegia. Lekune diralako oiek, ibilliz ibilliz, doñua sortarazten dute. Amar omen ziran zeruko izarrak (amarra zenbaki betea zalako) eta, beren ibilleran, bakoitzak doñu berezi bat sortarazten eta guziak esaneziñezko musikaz alkartzen omen. Zer dalata gizakumeak eztute entzun oi musika ori? Izan ere, etengabea, ixillunerik eza dalako. Arotzak era bere maillu-otsa eztu entzuten.

Lenengo lau aapaldiak, beraz, maillaldi baten beste oinbeste koska dira, bosgarrena berriz (argitaraldi batzutan eztatorrena) mailburuko: Jainko-begiestea dana. Eta Jainkoa da ereslari goren, munduko eratzalle bikain ori; mundua, berriz, aren eskuetan derauntsan alako zitara aundi bat. Agustin doneak ere munduko erakundea soñulari garai baten kantutzat jotzen du: «*velut magnum carmen cuiusdam ineffabilis modulatoris*».

Pitagoritarrek mundua oro kopuru ta kideasun dala uste zuten, eta ori ezta ezertan musikan bezanbat nabari oi. Orrexegatik ikasi zuten lauaridun ereskiña (*tetrakordio*), eta tartekidea (*sinfonia*) zenbakizti arauz eratu ere. Aine aburuz, izar bakoitzaren igidura ez omen da berdiña, eta bakoitzak doñu bestelako bat sortarazten omen du, zitara-ari bakoitzena ere ezberdiña dan bezelatsu. Eta doñu ezberdiñ oiek oro alkartuz, orotariko erakundea sortzen omen da.

Au dalata, argi ta garbi nabari da Fray Luisen zitara-irudia. Izan ere, animak, musikaren bidez, bere jatorrizko eratasun eta ezaguerara egiten du, eta orrela sorburu lenena, ots, Jainkoa begiestera irixten da.

Seigarren aapaldia alkartzea, bat-egitea da. Animak, munduko erakunde gorenarekin alkartuz, erantzuki ideko bialtzen dio orotariko musika orri, ari ondo eztitu bat baillitza bere eiñean. Eta gero gozamina, atsegiña, zorabioa (7'gn, aap.).

Urrengo aapaldia (8'gna), bein senti izandako ederraren oroipen mingarria da. Gero (9'gnea), bere lagun olerkariak ontasun oiek gozatzera deitzen ditularik, anima berriro ere goi-begiestera igo dedin eta bertan betiko koka, bere adiskide Salinasi are ta musika ta eratasun geiago

eskatzu bukatzen du (10'gna). Azken aapaldi au, Fray Luisen azkenak oro bezela, neurriduna da, negar-jariozko dardara gordea igerri zaiolarik.

Oda onen egiturari dagokionez, *Tajoren iragarkizuna* bezin orapillotsu ezala esan bear, bañan ontan ere betetzen da olerkariak Oratigandik ikasitako legea. Lenengo zazpi aapaldiak munduko eratasunakin bat-egiterako mailladi-koska dira, azkeneko irurak berriz zentzun lizunerako jexiera.

Labur esan: alkarte ez alkarte bitartera biltzen da Fray Luis Leonen ertigintza osoa. Beti gozakaitz, beti minbera bizi da olerkaria, ta iñoiz eztiadirik, erakunderik edo *sophrosynæ*ik badazau, bizitzan lortu eziña dan urruneko ikuskari baten antzeko du.





## FRAY LUIS LEONEN OLERKI ONENAK

Fray Luisek berak antola izan zun bere olerki-bilduma, auei jarri zien itzaurrean P. Portocarrerori eskeñiak; bata etzuten argitara egiñ al izan. Olerkaria il zanetik berrogei urte barru (1631), Quevedok eman zitun lenbizi argitara, akaztun ordea; berorixe gerta izan zitzaien gerozko beste argitaraldi askoei. Antolin Merino, O.S.A., A.k eman zigun Fray Luis leonen idazlan osoaren argitaraldi zuzenagoa (1804-1816). Eta, M. Pelayon, M. Pidalen, F. Onisen eta besteen lanak burutuz, Jose Lloberas, S.J.Ak egin digu azkenez Fray Luisen olerki-argitaratze berri-beteenik. Onoko autaera onatan oni narraio.

## BAKARRALDIA

Bai benetan doatsu  
 mundu-otsari itzuri doana,  
 eta lurrean jakitun  
 bakan izan diranen  
 bidexka ixillez dabillana.

Aundien bizikera  
 arroak ez baitu kezkarazten,  
 mairu argiak urrez,  
 arri-nabarrez eraiki sapaia,  
 ark ez aintzat artzen.

Aotan aipagarri  
 izaterik ez dio ardura,  
 mingañak zurikeriz  
 goraipa dunaz ere  
 egjagatik ez jakin-gura.

Neri zer dit axola  
 beatz ariñak berezi nazan,  
 aize uts onen billa  
 ats-estuka banabil,  
 yoranez, irrika, il-bizian?

Oi mendi, iturri, ibai,  
 oi ixil gorde atsegingarri!  
 Ontzia galdu-urran,  
 itxas sumiñ ontatik  
 atsedan eske bainator larri.

Loaldi etengabea,  
 egun arrai, garbi bat nai dut nik;  
 odolaz edo diruaz  
 arro danaren mutur gaiztoa,  
 ez tuta nai ikus jadanik.



Atzar nazate txoriak  
txiuntza gozo ez ikasiaz,  
eta ez besten mende  
dagon arek oi ditun  
kardaba gaitzak aldi guziaz.

Naiago nigan bizi;  
griñatxar, bekaitz, gorroto, axut  
ta ustekeri ezik,  
goiari zor diodan  
zoria bakarrez goza nai dut.

Mendi-malda beera  
ba dut baratza eskuz landua,  
udaberri aldian  
lore ederraz apain,  
lendanz baitu nabari zitua.

T'ango ederra ikusi  
ta geiagotzeaz edo naro,  
muñatz lirain beera  
ur-txirripa garbi bat ariñ,  
jostari, ba dator arañ.

Eta gero emaro  
zuaitz tartean zearka dabil,  
eta bide batez  
lurra belarrez jantziz,  
loreak ugari dixuriz bipil.

Aizeak landa-mintza  
egurasten, eun usai bidaliz;  
susmur ezti guriaz  
daragie zuatzai,  
urre t'algoa aantzaraziz.

Bezate diruketa  
ontzira diranak uste aizunaz,

Ipar-Ego aizeak  
leyaka diranean  
ez dit axola asalda ditunaz.

Kirrinka dago masta,  
gau illun biurtzen egun argia,  
zeruraño ba doa  
naasiz iskanbilla,  
urmendoiz ugalduz ugaria.

Mai bat gartxu, atsedean  
onaz ongi betea nik aski;  
arazki landuriko  
zillarrera, bego  
ekaitzaz bildur oi eztanari.

Besteak aginpide  
galkorak ase eziñez egarri  
erre dituño gaxoak,  
itzalpera etzanda  
nagon ni emen kanta-kantari.

Itzalpean etzanda,  
untzorritz ta ereñotzez koroï,  
buru-belarriz adi,  
etorri gozo-mearen  
doñu eratsu onen entzunkoi.



## PRANTZISKO SALINASI

Nare duzu aizea,  
ederrez ta argi garbiz jazten,  
Salinas, doñu betea  
zur esku zolien  
eragieraz entzunik ozen.

Doñu garai orrezaz,  
ardura gabe dagoen anima,  
ba dator bere senera,  
sortzez duen eiñera,  
azturik zeukan goi-leñargira.

Eta baitara danean,  
zorunaz ta asmoz aurrera doa;  
ez dazau ogasunik  
jendek maite lakorik:  
edertasun galgarri lazoa.

Aidez-aide digaro  
goren gorengo oboa barrena,  
eta an bestelako  
durundi itzaleziña adi du,  
orotan iturri lenena.

Ba dakus Nausi gorena  
zitara ain aundi ontan emanik,  
nola ain antzez diardun  
doñuz, jauretxe onen  
sendasun duena betidanik.

Eta ain erakide  
izanik aindo, gero ba dakar  
erantzuki ideko,  
eta bieri nasian  
mintzura ezti darie alkar.

Emen anima atsegiñ—  
itxasoz igeri dabil, t'azkenez  
barrura murgil danean  
beste txinti arrotzik  
ez baitu batera zentzumenez.

Au bai zoramen gozo!  
erio bizikor! aanzte ezti!  
Aian banengo ontan,  
zentzu lizun narraz  
ontara beñere biur gabeki!

Atozte ona, lagunak,  
Apolo-talde deunaren zoruna  
zeratenok, ta nere  
ondasunik miñena:  
ikuskai oro negar illun da!

Berauntsa ater gabe,  
Salinas, doñu orretzek neregán,  
onela zentzuok ernai  
baitagoz goiko onari,  
sogor dirala gañeko gauzetan!



## ZERUKO BIZIA

Lur bizigarri argi,  
ez otzez ez beroz eztigarken  
zoruntasun-belardi,  
bazkategi gizen,  
betiko poz-iturburu garden.

Purpur eta elurrez  
burua koroi emanik loretan,  
Artzai onak larrez,  
esku garbi utsetan,  
artalde maitea darabil bertan.

Ba doa, eta doatsu  
darraizko ardiak; eta an larrosa  
biziaz ala ditu:  
zenbat geiago goza  
garatzenago dan lore panpoxa.

Gero mendi barrena  
on guzizkora daramaz; t'urean  
poz benaz ditu urezta,  
Artzai ta bazka batean  
ta zori ona dan mai betean.

Eta gingara danean  
goi-goi tinian eguzki gorria,  
abaro, ausnarrean,  
ardiaz bilbil gerria,  
ots eztiz bazka du belarria.

Txirula ari du zoli,  
ta oroz gañeko pozkario  
arima barna dixuri,  
ta sutan zorabio  
On neurrigabera daragio.

Oi ura mintzo! Balinba  
pits bat bederen zentzumenera  
baletorkit, arima  
zoramenez Zurera  
ledin, den-dena bat-egitera!

Ba lekike non duzun  
bazkalondoan kuluma gozorik;  
leze ontatik urrun,  
zure ardien albotik  
doake, or-ona ibilge zangorik.



## ZERUKO BIZIA

Argi-erri unide  
ondasunen belardi,  
ez baitzira zimeltzen  
ez izotz, ez eguzki!  
larre gizen, betiko  
atsegiñ etorri.

Artzai Onak zuregan  
—ez uge es furrundari—  
purpur-elur-loreaz  
buruntza zuri-gorri,  
zelai gurietara  
artaldea daragi.

An doa, doatsu dun  
saldoaren gidari,  
igatzen ez arrosak  
ditiela ianari,  
lore beti moxtua  
are berrituz sarri.

Aruntzago derama  
ondasunen mendira,  
egarria, basituz,  
kentzen dun iturrira,  
Bera Artzai, Bera larre  
bete dadukan maira.

Ekia gingan dala  
sarturik abaroan,  
artalde gerriko  
dula bere alboan,  
musika ioaz dauka  
auznarka, erdi-loan.

Txirularen mintzoa  
belarriak artzen,  
oldartzan da, sartzen da  
animaren muiñean;  
sur ta gar uzten ditu  
neurri bageko onean.

Arren, zuk, mintzo goxo  
zentzu auetan barna,  
ai zeneza bialdu  
zure pits bat nigana,  
Aren barrura sartuz,  
nadukan Beragana!

Ordun iakin nezake  
non duzun abaroa,  
ta giltzapetik lasa  
Zuregana nindoa,  
zor-zor ibili gabe  
artaldera, gaixoa!

«Orixek»



## TAJOREN IRAGARKIZUNA

Erregek lekuko gabe  
jolas zegin Tajoren ertzean  
Kaba ederrarekin;  
eta ibaiak, bulartuz,  
onela ziotsan aldi berean:

Inka txarrean duzu  
indarrez olgeta; Marten orrua,  
iskanbilla garratza,  
iskilluen oskarra  
ba dantzut, aserre biziz bildua.

Poz orrek zenbat negar  
dakarren; ondikotz jaio bear  
unan eder orrek,  
Españak zenbat malko,  
godoen jaurgoak bai kaltear!

Sugar, oñaze, gudu,  
ilketa, zorigaitz, ondamenak,  
zure besotan dagoz,  
bai zure bai pekoen  
berezko lan itzaleziniak:

Kostantinian lurralde  
aitorra lantzen dutenenak,  
Ebro-bera, Sansoñan,  
Lusitanin, España  
lur zabal, illun guziarenak.

Kadiztik oiui dagi  
Konde beztuak mendeku billa,  
eta ez aipuarren;  
basatar erasoaz  
zure kaltez leiatsu dabilla.

Entzuizu zeruraño  
turutak izigarri derauntsan,  
aprikar mairuaren  
gudurako deadar,  
zapia zabal aize-egotan.

Aidean darabilla  
dardaraz arabitar ankerrak  
ojuka aztamakilla;  
ots baten, ontzi-aldrak  
nabari dira alkarri bilbilla.

Lodi dator jendea,  
aiz-oialpe urgaña estaltzen,  
zarata naas-maas  
geituz doa galgal,  
errauts arroak eguna itzaltzen.

Ontziak lerro-lerro  
ba datoz urgora, arraunlari  
dira beso zoliak  
eta, aldean alde,  
itxasaldea aparrez diraki.

Eolok txopan oiala  
zuzen puzturik, Erkuli-ataka  
zear Netuni aitak  
bere sarde zorrotzaz  
ontzi-aldra daragi luzara.

A! gizajo, oraindik  
altzo gogoan al zagoz? galera  
deiari entzungor zera?  
ez al dakuszu gero  
Erkuli-kaia dagonik oimpera?

Erdu, laister, ega  
mendien gaindik, zelaia bete,



aztalari ez barka,  
eskuari ez amor,  
burniz zartaka egin errauste.

Ai nolako lerrenak,  
ai ori izerdi-jario mara  
erredola dunari,  
oñezko azkarrari,  
gizonen eta zaldien baitara!

Ik, Betis eder orrek  
ire ta besten odolez zikin,  
zenbat buru-kozkol,  
zenbat andiki-gorpu,  
itxasoraño daramak ondakin!

Eta argi bostetan  
Marte sumiñak nasteka ditu  
aldikal gudarozte;  
seigarrenez, ai ene!  
kate latzetan, oi aberri, zu.

## DIEGO OLARTERI

### Gau narea

Ezin konta-al argiz  
josirik zerua begiestean,  
eta aizaroz bilbil  
oroi-ezaz lo datzan  
lurrera begiak edatzean;

maite, miñez, gurari  
bizia iratzar oi zait barnean,  
Olarate, ta malko naro  
jalkimiñ begietan,  
naigabez diotsat azkenean:

Bizileku aundien,  
eder ta argiaren jauretze,  
orrerako jaio zan  
anima, zer zorigabez  
illunbe ontan dago erbeste?

Zer zorapidez onela  
dagoz zentzuak egitik alde,  
goiko zori orrezaz  
aztu eta, okerrik,  
itzal utsezko on aizun jarraile?

Bere zoriaz oar  
gaberik, lozorro dago gizadi,  
bitartean zeruak,  
oiñ-ixil inguruka,  
ebasten diola bizitzaldi.

Esna zaitetze, gizonak,  
zagozte erne zuen gaitzari;  
anima illezkorak,  
ainbateko egiñak,  
itzal da gezur izanen jaki?



Jaso begi oriek  
betiko zerutar lekune onera,  
ta bizikera labain  
orri itzuri egiñen,  
bildur ta igurikiz batera.

Pits bat besterik ote  
lurbira zatar, lizun alena,  
on goren onen alde?  
emen oberik baita  
ba-dana, izanan eta daikena.

Betiko erlantz auen  
alkarte iñork begira badeza,  
igieraz ain tinel,  
ibilgunez ezberdiñ,  
ta tartekidez alkar batera:

Illargik zillar-gurpil  
nola dabilkin, ta onen atzean  
Merkuri jakite-buru,  
ta Maite-izar sona  
dizdiz ta eder urratsean;

bai eta nola beste  
bidez dabillen Marte odolti,  
nola Jupiter on guziz  
beteak bere tximist  
arraiaz zoardi daukan ortzi;

erpiñean Saturni  
uztaidun, urrezko mendeen aita;  
onen atzetik izarte,  
kantari-talde aratza,  
argi ta ondasun-iturri baita.

Au begira ondoren,  
nola ederrets lurbira-itxura,

nor ez intziri t'aldia,  
eta anima katetan  
erbeste daukanaz ez eten-gura?

Au da pozkida-leku,  
emen da pakea jabe, emen  
aulki jori-garaian  
Maite gorena dago  
on oroz gozaro bildua ederren.

Edertasun betea  
emen baita osoro ageri,  
argi garbiz ditzira,  
iñoiz illundu gabe:  
emen udaste loretan beti.

Oi egiazko soro!  
oi larre gizen, atsegingarri!  
iturburu naro!  
oi kolko zoragarri,  
zelaidi gorde, on oroz ugari!





## JOAN GRIAL JAKITUNARI

Lurrak orain biltzen  
ederra, argi gaiztoz zeruak  
begitan artzen berde  
arraia, ta bana-banaka  
ostoz erazten adar-buruak.

Orain Ekiak bidez  
Aker-izla du txandan inguru,  
argi-aldia mozten;  
Eolok ego-aldetik  
igorten ufaka odei-murru.

Orain kurlo-saldoa  
goibelez lerro-lerro, karraxiz,  
ba doa igeri negar;  
orain idiak alorrez  
lurra urratzen, lepoa uztarriz.

Orain dugu, Grial,  
ikasgu aitorren epazartea,  
aipuak ere mendi  
santura ots egiten:  
araño ezin da igo gar xea.

Luza ezazu ongi  
urratsa, aldapa gora muñoa  
goiaño egizu bakar;  
ta garbienik darion  
iturburuan ase bai gogoia.

Ez kezka, urrea aundi-  
etsiz galdurik badabil okerra,  
on aizun baten billa;  
aizea ariñ badoa,  
arego atsaiñ irol-alperra.

Gomazu Ekiak burura  
dizuna, era zaarra berria  
aiñako, obea ere;  
ez uste, maite orrek,  
batera dudarik zurekin aria.

Aize-osiñ beltz batek  
erauntsiz, bide erditik ondo  
joaz, ala bearrez  
nere lira maitea  
autsi baitut, baitare egoa.



## BAKARDIARI

Oi luzaroz ain oker  
nenbillen onen kailde gordea!  
Oi jasan bear gaitzen  
gerizpe ziur, eta  
atseden ain gozo, argi, narea!

Lasta-etxola: or iñoiz  
ez kezka gaitzik, ez ere lagunik  
begi-luze, ez mintzo  
ustelik, ez eta iñor  
asmo gaiztoz jakile duzunik.

Zeru goiaño oan  
mendizut, bean ez bezelako  
lanarte gozaleku:  
emen jendeak, itsu,  
grña biziaz iltzea naiago.

Ar nazak gander ortan,  
pake gezurruts, jendarte galkor,  
lanbide alper eta  
iñoiz ere merezi  
ez izan gaitzez igesi bainator.

Ta ezar nazak gero  
egurats-tarte garbien baitan,  
zori gaiztoz irentsi  
pozoin-kalteak senda  
ta arnas loia-re txau dezadan.

Naikeri irol eta  
ezbear oroz zororik bizian  
gorabera guziaz  
itxeki ua, burutik  
kendu dezadan arian-arian.

Igan, lengo oitura  
ziranen orapilloa askatuz,  
soiñ-eunaz ia billus,  
kirats gabeko argiz  
gozaro paekan bizi nai dut.

Igan tinko egonik,  
itxasoz begiaz erruki edatuz,  
kresal barrena doan  
gizoste gaxoaren  
estuasuna dezaket nik ikus.

Kai aldera ain alai  
zetorren arek, ekaitzak jo-ala,  
itxas zabalez zear  
nora-ezean larri  
ontzia doi-doi jitoan darama.

Kardal artean ondatzen  
urliak batela, aren zai aoa  
zabalik orra osiña;  
jabaldi-zun sandia;  
besteak baxan du jotzen ondoa.

Jasak egun argia,  
biotza ostu oi die besteri;  
euren dirua uzten  
Netuni zekenari;  
il-bizi dabil bestea igeri.

Bularka dagi egiñ  
alean: bañan, ontzia gal-eta,  
zer dagike gaxoak  
ol aul bati eutsiz  
osin beltz aserrearen aurrezka?

A, bein eta ostera  
igesleku maite, gordea!  
ez akida uts-irten,  
eta bai okerrik, itsu,  
tirria oi dana oro, ordea.



## PILIPE RUIZI

Noiz diteke, Pilipe,  
zerura nadin erbestea  
lagaz, eta gorengo  
oboan egi betea  
miñik gabe an begiestea?

An nere biziak bat,  
argi-leinuri betean bil-billa,  
ikus dezaket bein-banan  
ba-dana eta izana,  
ta auen beren jatorri ixilla.

Ba dakusket orduan  
esku gorenak nola zimendu  
ain berdin eta galgan  
jarri dion lurrari,  
sendo eta tink dezan sostengu.

Ba dakusazket lurrak  
euskarri ditun betiko zutabe,  
xede eta mugarri,  
oien bidez Jaunak  
itxas sumiña baitauka mende.

Zergatik lur-ikara,  
itxas sakonak nola sumintzen;  
nundik nora Iparra  
liskar billa datorren,  
ta urak gora-beera dabiltzen;

nundik darien iturri,  
ibaien betiko urgoi aundiak  
nun duten elikatzea  
jakiñen dut orobat  
beroen eta izotzen sorgiak;

egurats zabalean  
nork ere deutsien goiko euriri,  
oñaztarren sutegi;  
Jainkoak nora dauzkan  
elurte, nundik datorren ortziri.

Udan ez al dakuzu  
aizea nola naasten dan oro?  
Illunkara da eguna,  
Gaztel eroak jotzen,  
ta autsak goraño egiten arro.

Odeiez Jainko-gurdi  
irauli diraul, azkar, dirdari,  
dardar eta durundi,  
su biziz dizdiz dagi:  
lurra ikara, jendea apalki.

Euri-jasa tellatuz,  
muñotan beera ugolde lodi;  
euren lana galdua,  
landak oro uretan,  
ikusten nekazariak lauorri.

Eta andik gorago  
ba dakusazket izarren ikarak,  
bai koloka diranen,  
bai tink daudenenak,  
aztikeri ta zeru-aztarnak.

Izarrak nork dabilzkin  
eta nork pizten ditun ederki,  
ain tinel eta zoar;  
zelan Artzai-makoa  
itxasoratzez erabe dan beti.

Nun dagon ere bizi  
t'argi-sorgu dan su betekorraren



elikabide, neguan  
nola oi dan leiatzen,  
gauak luzatuz nork ere gerazten.

Eta gorengo oboan  
ba dakusket egonez pozkida  
t'atsegiñ-egotegi,  
urre-argiz bitsetan,  
anima doatsuk an bizi baitira.

## KRISTO ZERURA

Ba zoaz, Artzai ona,  
ibar beltz, sakon ontan taldea  
negarrez utzi eta,  
egurats garbi zear  
egiñik betiko atsedeen-bidea!

Lenago alai ziranak,  
eta gaur illun et'atsekabe,  
Zure altzo beroan  
azi izanen zentzunak,  
nora egiñen yadanik Zu gabe?

Arpegi eder ori  
ikusi dutenak, zer ere besteri  
so eiñen miñik gabe?  
Zure mintzo eztia  
entzun ondoren, zer ez sorreri?

Orain itxas sumiñaz  
nor jabeturen, aizete latza  
nork emaraz dezake?  
Zu kuku egonik, ontzia  
nork eramanen zuzenez kairantza?

Poz ain laburraz bekaitz  
aizen odeia, zelan aiz minduri?  
noruntz oa ain ariñ?  
I, bai, jori oana,  
gu onen itsu utzia, ain urri!



## ANDRA MARIARI

O Birjiña garbi eguzkia baño,  
gizonen dedu, zeruko argi,  
goren beziñ errukior:  
itzuli lurrera begi oriek,  
eta begira espetxa gogorrean  
aizaroz illunik esita dagon gaxo bat;  
eta besteengatik  
dudan baño zori txarragorik  
ez aiñakorik zentzuak ezpadazau,  
zure esku altsuaz  
eten kate au, zeruko Erregiñ orrek.

O Birjiña, Jainkoak zukan  
atseden ona autetsi eta  
zigorra maite gozo biur zenuna:  
baldin zuzena bigundu  
bazenun, ain zuzen biotz goibela  
ozkarbi biur dezakezu;  
agerrazu betarte maitea,  
zeruak ederrets, lurak jaurets dutena;  
ba doazke odeiak, egunak argi egiñen:  
zure argiak, Andre goien,  
gaindu beza nere gau beltz, illuna.

Birjiña ta Ama batean,  
zure Egillearen sortzalle doatsu  
eta altoan bizia lorarazi zenuna:  
begira nola nere miña  
gero ta txartzenago, geitzenago den;  
otiña ugalduz doa, oneriztea aanzten;  
sor zenun zuzen-egiak  
Zu aren alde ezpazaitu,  
nun dezake kerizpe onik?  
Eta Ama zeranez,  
aski bekizu nere eziña ikusi.

O Birjiña eguzkiz jantzia,  
betiko argitan koroï emana,  
illargia ain eder oinpera duzuna:  
pozoidun eziñ-ikusiak,  
iruzur zorrotzak, mingaiñ ustelak,  
gorroto gorriak, ez-bidezko indarrak  
batean dagidate gudu;  
olako etsaigo gaiztoaren aitz  
nola gauz izanen lander, ez-aala,  
baldin zure izen onetsia,  
Maria, nere jagole ezpaledi?

O Birjiña, zuk gallenduz,  
gal izanaz, betiko gaitzaz, asmo utsegiñaz  
sugetzara alaraoka ari duzuna:  
itxar-ertzean orra aunitz  
galduko naizenaz ekuru begira,  
urak aundi, arnasa argal,  
batzuk pozik, bestek izu; samurrena  
errukiz mintzoa alperrik nekaraziz:  
ni, begiak zugana negar,  
kresal sumiñez zear banoa igari.

O Birjiña, Aitak emazte,  
Semeak Ama ezti, Maite itzaleziñak  
jauretze saindu, gizonen aterpe:  
ikara besterik ez dakust.  
Nere egoitzara so badagit, arrisku;  
baldin irterara, ezbaiko; laguntza mutu,  
etsaia odolgaitz,  
egia billus, gezurra aldiz  
arma ta aldezez orni-orni:  
nere bizi gaxoa  
bakarrik zugana itzuliz da arnas.

O Birjiña, goi-eskeari  
«bai» zintzo beziñ mena eman zeniona,  
zeruak zu baitan begiets nai dutena:



terreilka banintz edo,  
 besoak lotuta, begiak itsu,  
 amaika gezi ni zaurtu naiaz  
 ari zaizkit inguru;  
 miñ dut, bañan eskurik ez dakust,  
 eziñ dut iges egiñ, ez saiestu:  
 Seme gorenak, Ama laztana,  
 zugatik onez atera nai nazala!

O Birjiña, artizar maite,  
 itxas ekaiztsuan gidari argi,  
 errañu sainduz aizea ixil duzuna:  
 milla olatuk leyaka  
 arraun-aize-ontzi argal bat  
 osiñera daramate, urez ur  
 itsumustuan doala;  
 gaua ba dator, aizetea orruz;  
 orain zerura, orain ondora,  
 aga ausia kirrinka:  
 zakida lagun arkaitza jo baño len.

O Birjiña, guzien nokuz,  
 gizartea zikindu oi duen  
 lenen gaitzaz kutsa ez ziñana:  
 ongi dakizu aurtzarotik zugan  
 itxaro dudala; ta gaindu nindun griña gaitzak  
 ogendun bizi au zure erruki orren ezgai  
 biur baldin badu,  
 zenbat eta gaitzago izan eria  
 eta gutxigo merezi laguntza,  
 zure errukiak ainbat geiago  
 ager dezake bere ongina betea.

O Birjiña, naigabe latzak  
 mingaña lotzen, ta mintzoak nai luken guzi  
 esatea eragozten;  
 baña adiozu etengabe  
 oiuz ari zaizun biotz minberari.

## DONIBANE GURUTZ



## GURUTZEKO JOAN DEUNA BERE IDATZIETAN

### Aita Onaindiak

Santu-maillan erpiñeraiño iritxiak ditugun gizaki doatsuak ere, gu bezela, ezur ta aragi izanak dira ziurrik asko. Baita Gurutzeko Joan deuna ere. Kondairak dioskunez, gorputz tipi genun, baiña zatiak oro egoki ta eñean zeuzkana; bere soiñari ainbat ildura, zigorraldi ta astindu arrazo zizkion arren, etzun esateko geixorik izan bizitz-egunak zear.

Arima bikain bat ere ba-zun gorputz orren bizi-kemen, eta auen artean olako kidetasun zoragarria. Joan Gurutzekoa, beraz, eredu jator dugu barne-bizitzarako, txit garrantzitsu nai andik nai emendik, edozein ertzez begiratura. Gogo-almen etra zentzunak indar ekurtsuz ornituak zeuzkan nunbait, eta, norbaiten aiuru ta izakera auek dagiten ezker, setaz ere bikaiñenatarikoa dugula esan bear. Xamur, baiña ez bildurti; goxo, baiña sendotasunean tinko; biozti ta noizka oso jaikia, olermenaren argi-aldietan batez ere.

Ezaguerari dagokio ederra, ta sortzetikoa begiz ta belarriz jaso oi dugu geienbat, auek baitira eder-zentzunik berezienak. Joan Gurutzekoa, berriz, zein ikusmena zein entzumen, biak zeuzkan zorrotz-zoliak: idatzirik utzi zizkigun liburuetan parra-parra ereinda daurkizkigun iduri bizi ta eragilleak, ikusmen ernea adierazten digute noski; entzumen zolia ere bai olerki-ahapaldietako ezaken-bukatze oskidetsuak eta itz-esakeren goxotasun berdingeak. Eta lumea artu ta erabiltzean etzun besterik egin barrua eman baiño; beraz, barrenkoia dugu Joan Gurutzekoaren jakinkizuna; orobat bere ele-eder ta olerkia ere.

Naiz-ta gorputzez osasuntsu, etzan luzaro bizi izan, berrogeta bederlatzi urtedun il bait-zitzaigun. Idazle bezela ere ez dugu epe luzean jarduna, etzun bada olako presa aundirik izan bere uste ta biozkadak argitara emateko; bizi-bearrak nola eskatu alan ustu zigun biotza, beti lasai ta gizonki. Berez genun asmotsu ta antzelari, baitik-bat olerki barrutian; eta bide ortatik jokatu bear zuela estu genezake, berezko jit, oldar ta joerari amor egiñik; baiña etzan ortara makurtu. Jainko-maitasuna ta lagun-urko-arekiko garra izan zitun zio ta zuzpergarri bere idazti jainkozkoak osatze-ko. Etzun beste asmorik erabili.

Goiz illun batean, barruko aitu-eziñak zirala bitarteko, Toledoko karmeldar komentuan morroillo ipiñi zuten, ondo zaindua. 1578'garrena zan, eta ogei ta amasei urte zituan praille gazteak. Teresa Amarekin batera, karmeldar Lagundia berriztatu nai zun; baiña au etzuten danak begi onez ikusten.

Soiñez asko eraman bearrean ere, gizon garaitua zegon, bai adime-nez bai biotz-ondo. Eta, ain zuzen ere, orduantxe asi zan, gela itsu batean illunetan zegolarik, bere barren oiñazetua usten; lendik ere olako aolku ta eskutitz eta bestelako orrotxoren batzuk idatziak zitun arren, espetxe zurbil artan agertu zitzaigun idazle, olerkari; ots, antzelari. Antxe asi zun bere *Barne-kanta*, maite-kanta ezti samurra, olerki liriku ezilkorra; antxe idatzi zitun ogei ta amargarren ahapaldiraiñoakoak, gero Baezan eta Granadan osotu zitun arren besteak.

Geroago idatziak dira *Karmel-mendira Igoera*, *Gau illuna* ta *Maite-sugar bizia*. Mistika-gaiez, jainko ta arimaren arteko ar-eman ixillak azaltzen ditun jakinkizun eskutuz lillurazitako lau liburuok, oso ederki eratu ta taiuturik utzi zizkigun, batez ere *Barne-kanta* ta *Maite-sugar bizia*.

Ixillezko jakite ontan maillaz igorik doa arima, epeka bezela; bidean ba-ditu zer-garbitu ta erabateko zoztorrak; mendi gaiñeko aize bigunetan murgil, atsedean artzera orduko, miñaren miñez, gau zurbillean, norae-zean, gorriak ikusi bear ditu gaixoak. Ala ere, ekaitz zirimoltsu ostein eguzkiak dirdir egin oi du; berdin gertatuko zaio arimari ere, mekezko gau beltzean zear Maitea zai daukan Karmel mendiaren tontor argitsura iritxiko baita.

Lau liburuotatik lenegoari *Karmel Mendira Igoera* deritza: ta irudikizun baten biltzen du Joan Gurutzekoak bere irakaskintza osoa. Gure arimea Jainkoak sortua da, Bera du beraz elburu ta muga, bai orain bai gero; arimeak zoriona opa du, ta egiazko zoriona Jainkoarekin, elburuarekin batuta bizi izatea noski; zorionik jator ta iraunkorrena lortzeko, barne-osotasuna egin ta Jainkoarekin alkartu bear. Batasun ori irixteko, ordea, arima garbitu bear dugu goirako bidean zoztor ta Jainkoarekiko kaltegarri zaion orotik. Au eskuratzeko bideak? Lenen, buru-ukapen osozkoaren bitartez, zentzunak beuren ingurumariko zer guztiekin lege-esipe arautuan sartu; ta, ondoren, Irutasun deun-deunaren galtzarrean igeri, siñismen, itxarokizun eta maitasunezko jardun goxo atertu gabea aritu.

Iru zatitan banatuta daukagu idazti osoa. 1) lenengoak arima gertatzen du Karmel mendirako len-maillak igotzeko, au da, bidetxior ezkutu zear igotzen asteko. Nola? Iztaez gaiñetiko bizitzarako eragozpen eta oztopo zaizkion *atsegin* ta *apeta* guztiak erantzi, billoistu ta neurriera ekarri-



rik. Igotze nekezko, aldapatsu ta luzea nunbait, baiña erpiñera eltzeko ibilli bearra. Zenbat era ariñago, ots, griñaen zamaz utsago, lenago gera gailurrean. 2) Bigarren zatiak ere ba-du bere elburua: *adimena* ta sumagarriak artzeko onek ditun beste laguntzaille guztiak garbitu; dana utzi bear da, tontorrera eltzerakoan, gozotasun utsean Jainkoarekin bildu ta siñiestzeko begiratze zoragarrian goza al izateko. 3) Irugarrenak, azkenez, beste ainbeste dagi *oroimen* eta *naimenarekin*, garbitu ta utsitu lkandako zer guztitik, eta bide batez itxaro ta maitasunez ase-bete.

Orpoz-orpo datorren bigarren liburuari *Gau Illuna* deritza; eta lenengoaren edo *Karmel Mendira Igoeraren* jarraipena dala aitortu genezake. An arima bere ari zan barne-garbiketako lanean; emen arimak baiño ere lan geiago dagi Jainkoak, laster emazte izango duen arima akats eta orban guztietatik garbitu ta elurra bezin zuri biurtzen.

Bi zati ditu liburu onek ere. gau illunean datza oraidiñokarren arima gaixoa, zentzun ta gogo gau illunean. Beraz, lenbiziko zatiari *zentzunaren gau illuna* deritza, ta gogoarena bigarrenari. Eta auxe da, egi-egiaz, gure Santua ain ospetsu egin duen mistika irakaskizuna.

Len, igoeran, bidexka izkutua zear gorantza zijoalarik, guda gorrian ikusi genun arima, bere baitan ditun izatezko joera ta garramura gaiztoen aurka; kanpotiko burruka zan geienik, edo beintzat azal samarrekoa, barne-mamiraiño osorik eltzen etzana nunbait. Oraingoa, berriz, barrukoagoa duzu; gogo bere izatearen zokorik barruko ta ixillenean bildu ta antxe daurkigu gudu izian, edo obeki, Jainkoaren esku mende, ikuzlearen eskuetan zapia bezela, alegia.

Ontan Joan deunak suak ozka dagion egurra dakarkigu gogora. Oni lenbizikoz kea dario, ezerik baitago; pixkaka galdatuz doa, ta azkenik gorigori itzultzen; osoro garbituz gero, ez du kerik ere ematen. Onelaxe, gau illuneko arrago bizi ontan, gertatu oi ditu Jainkoak berarekin bat-egin eta alkartu nai ditun arimak. Arimeak ez dagi deusik, Jainkoak garbitzen du, Bere begiraldi goxoaren zizta indartsuz. Gau aizarotsu ontan Jainkoak dama, arimeak artu.

Gizakiak giza-erara egin oi ditu, baita artu ere; Jainkoarekin biltzeko, baiña, nolabaiteko Jainko-tankera artu bear, eta au eziña dugu aurretik garbitu ta araztu ezik. Eraberritze au latz bezin neketsu izan, antza, gau itsuan barne-min, atsekabe, oiñaze ta eiagoraz egiten dana.

Lenengo zatiak zentzun-garbiketea azaltzen digu bereziki, kanpotiko sumagarri aldetik nabaitzen diran ondorenak. Bigarrenean, oster, barne-barneraiño doa; gogo utsaren zokoraiño barrendu ta arimea, zeun-

tzun-eragin ta ekin naasi ta kaxkar gabe, lasai ta eder igi dagian azpi-zokorik ixillena arakatzen du, eta gizonki arakatu ere, gure mistiku garaiak.

Alan eta guzti ere, orrako gau beltz ori ez da betikoa; gau ondoren eguna dator, ekaitz ostean ezialdia. Izadiko lege. Berdin arimen barrutian ere: oiñaze ta neke-lorak bukatzean, zorapenezko argiak dirdir; eta aurretik igazi diran naigabeen izpirik ere ez dugu ikuskatzen, ondorengo zauskada gozoez ezta miatzaturik. lengo lorra utsal dirudigu orain.

Gaztelar Santuaren *Igoera* ta *Gaua* naigabezko poemak dira; eraso ta eutsi, burruka gordiñean. Baiña miñaren miñezko ekite latz ori ez du berezko elburu, Jainkoarekin alkartzeko bide baizik. Etzitun egia esan, osorik amaituta utzi *Gau illuna* deritzan liburu ontako bi zatiak. Zortzi ahapaldi ditu poema onek, eta etzitun azaldu bi baizik; zortziren azalkizuna egin ba-lu, etzun arima ziurrik asko gau beltzeko aitzulo ortatik argitara gabe utziko. Orrela dio, bederen, azken-ahapaldian:

*Lotu nintzan, aitzua,  
Maiteagan nengon burua makur;  
etzan ezer; ni lasai,  
nere kezkek utzirik,  
lilien artean arras aantzirik.*

Ez, Gurutzeko Joan deunak —karmeldar Lagundia len-erara biurtu zun gizaki gotorrak— ez du ezer ere erdizka ta urgun bezela uzten. Or duzu *Barne-kanta*, maite eresi sutsua, munduko literatur kondairan ezagutzen danik eta olerki lirikurik ederrenetarikoa. Or argi oro, poz eta atsegina; argitara baita arimea. Uxa ta urtu dira laiño beltz eta odei ikaqragarriak; gogorra, txit neketsua izan da gora-bidea, baiña or orain arima aratza mendi-gaillur dirdaitsuan, jainkozko argitan blei-blei.

Maite-kanta ontan arimak eta Kristok, alkar-izketa lillurakorrez, beuren barren-miñak oiukatzen ditute, xamur ta giar. Ez ark ez onek, ez du kezkarik; ezeren arreta edo axolik baldin badute, maiteminduek izan oi ditutenak dsira, maitasunak dakarzkieten min ta zauri goxoak, gogo-miña xamurtasunez urtua uzten dituenetarikoak. Lenengo ahapaldietan, gorde ta agiri, kukuka dabilta jolas-zurrean; gero, bertso-kantu garaitsuenakin, alkarren arteko eder ta doaiak abesten ditute; eta, atzenez, alkarri itz-emate goxo ta ezkontza ostena, arima ta Kristoren arteko ezkontza, bi maitaleen arteko gurari, uisi ta naiezko bategite zoragarria. Arima Emazteak ez du nai emen, Kristo bere Senarrak nai duna edo nai ez duna baizik; onezker, bata-bestearenak dira alkar-emate ixil zoramenezkoan.





Onela amaitzen da zerutar kantu ori, loretsu, argi ta sentimentuz betea. Baiña, gero zer ote? Zer gertatzen ote alkar-batasun ortan? Nola-ko bizimodu daramate bi maitaleak? Arimak ez du beste arazorik, begiratu goxo etengabean Maitea ikusi ta maite izatea baiño. Ixil utsezko egoitza barnekoian bi zorakortu. Kristok, ikutu biguñez, gero ta geiago piztazi ta azkortzen du bere Emazte arima. Eta maite-bizitza ori ere ezin utzi iñolaz karmeldar Olerkariak —berak bizi-ikasia noski— adierazi gabe. Ortarako beste poema bat idatzi zun: *Maite-sugar bizia*; labor ta jori. Arek bai azaltzen ditula ederki arimaren barru-oarpen, zauskada ta zirarra esan-gaitzak! Illeti antzo, irazekia dirudi arima Jainko-maitezko su gotan; eia-gora ta asperenka dager, maite-labeen murgil. Batean iru dan jainkoak erretzen du bere altzo uler-eziñean. Eta, ala ere, oraindikan lurrezko soin-barruan esiturik bere burua ikusi ta zeru-dirdira zelanbait dastaturik, ez du bizi nai geiago; eriotza opa du, ta alan deskaio Jaunari. Onako zerbait kantatu zun beiñola gure olerkari gartsu batek, ahapaldi au osatzean:

Hilik baizen ezin bizi, hau da bada zortea!  
 Eta oraino bizi behar, bortxaz, o dolorea!  
 Ezin-hilak ene baitan ala baidu luzatzen,  
 O heriotze maitea, zerk hau horla berantzen?  
 (Milla euskal olerki eder, 147)

Onetxek dira Gurtzeko Joan deunaren lau liburuak. Bigarrena, au da, *Gau illuna*, bukatu gabe zeukan Jainkoak berera eraman zunean. Beste irurak egin-egiñak dira, mistika-gaiez kuin-kuin. *Igoeran* eta *Gau illunean* zortzi ahapaldiko olerkia bera azaltzen du, baiña ahapaldi bi bakarrik, besteak tamalez ikutu gabe utzi zizkigun. *Barne-kanta* ta *Maite-sugar bizi*, bai bertso bai azalpen, ederki egin eta biribildurik dauzkagu, arima barnezaleen goxogarri.

Aipatuetatik iru saiets utzirik, orain gagozkion bereziki ta labor Barne-kanta poemari.

Olerki lirikar ederra noski, munduko izkuntzetan danik bikaiñeneta-koa askoren iritiz. Egilleak etzion eresi oni olako idazpuru apartekorik ezarri, geroagokoa baitugu *Maite-lelo*, *Barne-kanta* (*Cántico Espiritual*) dala-ko izen ori. An Toledoko gela zurian atxillo zegolarik, gau illunean antza, berak maite zunak utzita bezela, Jainko-maitasun gozoz mozkor, deadar-oiu goría dagi:

*Nora jun zara, Maite,  
 ni enen largarik min-garrasika?  
 Orein antzera zoaz  
 iges ni zauriturik;  
 enen nozu deiez, ta Zu gordeka.*

Edu ontakoa dugu len-lerrotik azkeneraiño guztian, txinpartaka egiña, arima ta Kristoren arteko jardun betea. Eta ez gero edozein arima: Joan deuna orrela maite-mindurik zegon Toledoko baitegian, eta ahapaldi kartsuetan josita, irarria dagerkigu enen bere barne-giro osoa. Ezin dezakegu bero-mailla oberik idoro, bere biotzaren Jainko-zama aztatu ta neurtzeko poema alegitsu ta ezti-jariozko au baiño.

Badakigu nola azten dan zugatza, eguzkiaren beroz ta lurraren ezotasunak lagunduta. Maitasunean ere berdintsu jazo oi da. Gurutzeko Joan deunaren kanta ontan ere aziaz doa arimea, maitasunean aurreratu ta ugalduz; eta azi-goratze ortan, zidor-egaletan olako oroigallu batzuk uzten ditu, arrimokor antzera. Zer ote? Arimeak Maiteagandik artutako doai ta ontasunak, egin dizkion adierazpen arrigarriak, ezaguera ta maitasunezkoak ikustaldi, mesede, albiste, zauri, maite-ikutu ta abar. Oien bidez, arimeak gorantza dagi, mendi ezkutuko mailladi gora, an goiko erpiñean ospatuko dan oturuntza pozgarri betikora iritxi arte. Laguntza auek eusgai sendo ditu arimeak.

Biotzez maite diranaka alkar ikusten dute, al bait eta sarrien. Kristok ikustaldi atsegingarriekin alaitzen eta su-piztutzen du arimea. Badaki onek nor dun ta zer dagin; eta ezagueran areagotuz dioan maitasuna bizi ta irazekiagoa izan oi da, espa ta naigabeak bezela. Augaitik, poema erdiruntz, olako norgeiagoka bat asten da bien artean, txit goxo ta jaikia: alkar-izketa zuzpergarria noski, olerki antzeztuaren azal-gairk arduratsuen.

Ala ere, ahapaldi bakoitza ez duzu maite-mailla edo arimeak bere gora-bidean dagian urrats bat geiago. Ez da ainbesteko osotasunik. Joan Gurutzekoak ez zuen olako bide berdin joate antzerik asmatu; aren olermen indarrak eta irudikizunak, maiz, arimea maite-mailetan baiño urrutia goz dijoaz.

Dana dala, poema osoa begiz jorik, bost epe bezela zenbatu genitzake, batasunaren murritze aundi barik. Barreneko bide ori ez dugu aldioro berdin doana, etengabe ta jarraika. Gogoak bere Maitearekin burutzen dun kondaira ontan badira uneño batzuk besteak baiño gaiagokak, eta auetan ere badira beste batzuk ain ondo berezi ta banandu bageak, olako tarte luze-labor muga-ezak. Olerkariak, jakiña, ez digu egunik egun



bere barne-bizitzaren edestia erasi; lipar gordiñenak, bai, adierazi dizkigu alegi gartsu gotorrez, Jainkoarengana irixteko eman bear ditugun urrats eredugarrienak begi aurrean ipiñirik. Une batetik besterako ori geienik ez da aitutzen, olerkariak ez dio garrantzirik ematen. Noizpeinka, ezarian ezarian, igarri gabe, goraiño igoa daurkigu. Noiz eta nola igoa? Ezin ba asmatu. Ahapaldi bat beraren barruan ere gerta oi da iñoiz giro-aldatzea.

Ona, atzenez, bost epe edo arotan *Barne-kanta* osoaren guna, ahapaldiz ahapaldi.

1) *Maitearen bila* (1-12).— Zerbait gertatzen danean, toki berezi baten gertatzen omen. Ortik gogotan darabilgun unai-kanta onek ere badu bere gertaleku emana. Nun ote? Lenbiziko irudiak ez du ezer oso mugaturik. Arima maitez minduari Maitea gorde, ezkutatu edo or nunbait sartu zaio. Nun, ordea? Ez daki, albotik urrutiratu zaiola daki bakar-Obakarrik: Maiteak iges. Ta au billatu bear du naitaez. Olerkarik ertz ta mugaz esitu du tokia, irudikizun eta alegi oi ez lakoz esitu ere. Ta emen daukagu poema osoaren matasa mugatua, inguratua; badakigu nun gertatzen dan. Maitea ostendu egin zaio arimari, baiña badaki gutxi-gorabera nun dagon gorderik. Billatzeko baditu bide batzuk: aztarnak utzi ditu Maiteak igesari ematerakoan, aztarnak «mendi ta ibarretan», aztarnak «muiño ta mugetan», aztarnak «zuazti, zelai, sarobe ta larretan». Lorratzak or ta emen...

Arrapaladan doa arima Maitearen billa, oni ta ari galdezka. Antsiz eta negarrez mendi ta muna zear; eta ez da arritzekoa, zauritua bai dabil. Iraizean bezela agertu ta iges egin dio Maiteak. Eta Olerkariak bai txairo ta margo biziz apaindu billa-irtetze au, idazkera arin, egoki ta neurrizkotan! Uin antzo, bata bestearen ondoren datoz intziri, negar ta garrasiak; galde ta dei, arao ta erantzun, zotin ta adiazko uiol eutsi-eziña dirudi.

Eta orrelaxe doa aurrera. Arimea bakarrik, Maitearen atzetik beti. Amairugarren ahapaldiraño ez da agertzen iñondik ere Aren erantzunik; arimeak bakarrean diardu deika ta intzirika, epegaitz eta dardarti. Maiteak, egia, geznari ta mandatariak bialtzen dizkio, zer ta nolakoa dan esanik; baiña areago zauritu besterik ez dagite, il-egiñean utzirik beuren izketa totelez. Etsi-antzera, zurrin ta zail, onela ots: «Ai, nork ni osatu...!» Eta, «oi bizitz! nola dirauzu ezin bizitz? Biotz au, zauritu duzun ezker, zergatik ez duzu sendatzen?». «Erakustazu arpegi ori, ta il nazazu gero zeure begiratuaren ederrez...».

Amabi ahapaldi, Maitearen billazko bakar-izketa gorian, zalantza ta ezpai mergatzez ornidua. Auxe dugu lenengo epearen gai-ardatz.

2) *Senar-emazteen alkartzte* (13-19).— Gogoz saiatu ezker, arin edo berandu ardietsi oi da billa gabiltzana. Arima ere paketua dugu billaketa leikor ondoren. Ur gardena txirrioka ematen zun iturri aurrean galdezka zegolarik, begiak jaso ta Maitearekin topoz egin. Ezin du eraman Aren argi-zitzaren gogorra, ez bait-dago oraindik bear bezin aratz, bear bezin duin Arekin alkartzeko, eta pitin batean beintzat, alboratzeko eskatzen dio xamurki begi oien dirdira.

Baiña Maitearen abotsa dantzu, orein zaurituak its dagio lurta er dan mintzo zoragarrian. «Itzul zaitetz —diotsa—, uso eder; ona orein zauritua muiño gaiñean zure egoaizearen giro ozkirrian atsegintsu».

Arima-emaztearen zoriona! Barne-osiñeraño sartu zaio goxotasunaren ezta; lurbirako gauza ta zer guztiak ere lurrin usaitu ta begi-betegarri egin zaizkio, ta aieri oiuka ari da, baso, zelai, aize, egazti ta izaro, zurrinbilloan gogoraziz. Pozkariozko abestirik ederrenean gorensten du Maitearen irudi zangarra, izaditik artutako ikur bizi antzagarrien bitartez. Baita gero, ederrik asko, marraztu ere biak alkar artu dutenetik asiriko bizi berria.

Maixu gisa ari da emen gure Santua, idazkera ere zerbait aldatuz; aurreko ahapaldietan etzun ba erabilli urri baizik izen-lagun ta abar, emen ordea orrako itzak lilluragarriri jazten ditu laguntzaille tinkoz: «bakar oiantsu», «erreke soiñulari», «aize bigun», «gauaro ixil», «bakartegi ozen», «apari eztizko»...

Arima ere osotasun-maillan gorago igoa dabil.

3) *Gogo-ekontza* (20-27).— Ona maite-eresi onen unerik arduratsuean. Maite biak, alkar idoro ondoren eztitan daude, eskuak emanik; Emazteak ez du ezertariko zaratarik gura. Mahastia lora baitago, beude urruti azeriak, ez bedi iñor mendian agertu, Ipar gaizto ere bego geldirik, judear neskatzak ere ez bezate an urbillean otsik atera, Maiteak lili tartean ats artu dezan. Senarrak, bere aldetik, «egazti», «basauntz», «mendi», «aize», «sargori» ta abarri oles ta arao dagie ozenki, arren, ormarik ez ukatzeko eskatuz, Kutunak lasai lo egin dezan. Emaztea baita gogo zun baratzean sartu, ta bertan datza maite dunaren besarte biguinean burua makurturik. Biotz gori bi —Kristo ta arima— alkarri itsatsirik.

Orain ere badakigu unai-kanta ontako antzezlariak non dauden: «opa zuten baratz atsegingarrian». Emaztea «barneko ardangelan» sartua da. Mahasti edo ortuetan ez al duzute olakorik ikusi? An edango du mistel goxoa, ardo luzez ondua ere bai, Maitearen eztaietako apartu xuxpergarrria. Edan du, bai, ederki antza; eta ondoren, abere-taldea zaitu naiean, ibarra zear irten dalarik, ez da iñondik ageri lengo saldoa.



Nai aña izan zun Emazteak ardotegi ixillean; bularra ere antxe eman zion, ba, ta jakite arrigarria. Berak, ostera, zan guztia eskeñi zion, betikoz Bere Emazte izateko itza emanik. Argi ta garbi aitortzen du ogei ta zaz-pigarren ahapaldian:

*An nindun ugatzatu,  
an irakats zidan ezizko jakintza;  
nik, ostera, naizena  
oso nion eskeñi,  
betikoz emanik emazteko itza.*

Olerkariak, oi bezela, panpin ta giar margozten dizkigu bi Maitaleen maite-lillurazko ar-emate auek, itz-joko pitxi ta aberaskiz gaiñezka.

4) *Maite-bizitza* (28-35). Eta onezkerok, bata bestearenak dira-ta, maitasuna dute jardun ta arazo bakarra; gogo leialez alkar gartsuki maite izan, ez dute beste zeregiñik, batasunezko mailla gorengora iritxi diranetik. Eta jardun ortan aurretiko zalantza, esturaldi, maite-mintze ta enparau xeetasunak dakarzkite gogora.

Emazteari, batez ere, eder ta atsegin zaio beiñola Maitea erakartzeko erabilli zitun bide ta maltzurkeriak gomutaraztea: ille bakarra zekarkin lepoan, dardar aizeak jotzean, bere begi batek zauritua. Alderantziz, Ark begiratu zion ta doai-ederrez jantzi zun osorik. Azalez ere len beltzeran zenun; orain ez, orain so dezaioke lotsakizunik gabe, begiz jo zun ezkerok ederrik ipiñi bait-zun ezin-bestean.

Alkarri egin zioten ematea osozkoa izan zan nsoki; arimea, beintzat, kemen ta adore guztiarekin Maitearen mendeko duzu; ez du aurrerantzean abere-zaintzerik, eta elngo lagunak, zelai ta belardi zear, ikusi ez baddagite, maiteketan ibillirik galdua dala uste izan bezate. Maitearekin batean «lore ta pitxi guriz» sortak ere egingo ditu, ots, onomenezko egite zoragarritz bere burua gero ta geiago apaintzen saiatuko da.

Senar-Kristo, berriz, pozikan dago; uso zuria kutxara itzuli baitzaio abar ezea mokoan dularik. Bakarrean bizi dira, bakarrean atsedean artu ta alkar maite izanik.

5) *Zeru-min* (35-40).— Azkenengo bost ahapaldietan Emaztea mintzo da bakar antzera. Ustetsu agertzen zaigu, baiña ez oriandiño oso aserik; eta eskabide berriak dagizkio Maiteari: ederrik asko ikasi ditu Arengan, baiña areago ezagutu naia azlatzen.

Maite-billa asi zanean non aurkitu zun adierazi zigun: «ibar-ondo urdiñean», «baratz atsegingarrian», «ardangela izkutuan». Etzaio naikoa.

Maitasuna espatsu batia, toki ixil bakarrago bat gura du orainik, Senar maitearekin kezka izpirik gabe egon al izateko. Eta bakar-zale ta griña orrek bultzatua, bere ustez beintzat leku seguru ta egokiagoak diranak gogorazten dizkio: «ur gardena darion muiñoa», «ango itzalpe barnekoia», «goi dagon artzuloa»...

Antxe gordeko dira, ziurrik aski. Baiña, au ere naiko ez balitz, izamen irazanaren mugak igaro ta arimak urruti bezela erdi-ikusten duen «donokiraiño» iritxiko dira. Atsegiñezko baratzaren bestekaldean, oian itsuan aurrera joanik, *zerua* baita aurkitzen. Eta Kristok an emango dio beste egunez erakutsi ta eman ziona:

*Aizearen ats mea,  
txindor eztiaren maite-leloa,  
ibar ta ango giroa,  
izar dan gau narean  
min bage erretzen dun sugar-lanboa.*

Auxe dugu, urrats luzeka, Gurutzeko Joan deunaren mistika-era jator berezia, berberak oarrez ta biziz ikasia ta guri erudugarri utzi ziguna. Izan ere, barrendegian badugu olako leku ixil txanbeliña; ortxe bildu oi dira maiz bi maitale —gogo ta Kristo—, eta giza-mingaiñak esan ezin añaiko gertakariak izan oi dituzte, lurreko loiez arimea garbitu ta maite-suan gorituz doanean.



## DONIBANE GURUTZ, JANKOTIAR OLERKARI

### «Jainkorako» olertitza

Oker izan da Donibane Gurutzen olertigintza bakoizka ta berezian artzea, eta —batean santu ta olerkari danez ezkutuago izanik— aren olerti-eskupera iritxi al izateko eragozpide ere. Aspaldi onatan, ordea, agirian jarria izan da Donibane Gurutzen olertiak «jainkorako» poesi-goaiarekin dun aidegoa.

Garaiko egikera izan zan giza-eginkizunak jaikoratzea, eta Españan XVI'gn, mende osoa ta XVII'go asiera artzen du joera orrek. 1613'an Prantzisko Villauak diñokenez, «ori, gaia aldatuz ta egitura artuz, egiten zan».

Jakiña denez, *Barne-eresia* errotik eta dan-danez *Leloen leloaren* jainkoratzea da; orrexegatik, *lanketako lirak* deritzan esku-idatzi baten *leloen Itzul-keta* bezela dator. Ortaz landa, bi jainkoratze-iturri mugatzen ditu D. Alonsok: eleki ikasiak eta erri-elekiak. Emili Orozkok gañera beste eleki bat ere aitatzen du, olerkari mistikuari artez eragin ziona: karmeldar oñutsen konbentuetako olerti-loraketa dalakoa.

Jainkorako olertitz-pataska guzi ortan, oleti jatorrak du leku berezienik. Maiz, bertso-bilote bat oi da lurta ta zerutar ekarrien arteko lotura, adibidez, D. Alonsok aitatzen ditun don Gaiferosen zortzikoko bi bertso auekin gertatzen dana:

*Caballero, si a Francia ides,  
por Gaiferos preguntad.*

Onela aldatzen du Lopez Ubedak:

*Angeles, si vais al mundo,  
por mi Esposa preguntad.*

Pedro Padillak berriz:

*Sospiros que al cielo ides,  
por Dios Hombre preguntad.*

Vegatar Lopek ere onela:

*Lágrimas que al cielo ides,  
por mi Esposo preguntad.*

Bestetan, aapaldi jator baten jainkoratzea gerta oi da. Erri-kantuetiko Alvarez Gatoren lelo mistikuak, adibidez, XV'gn, eta XVI'gn, mende artekoak; edo Fray Anbrusi Monteginoren lelotegi polita, eta 1549'go *Barne-Lelotegi*ko eguerri-kantak ere.

XVI'gn, mende-erdialdeko olertikera au da Teresa deunagaño ta Donibane Gurutzaganaño eltzen dana; berauxe ere eliz-lelotegietan XVII'gn, mende-asieraño, baita Vegatar Lopeganaño ere.

Olertikera au zala-ta, Teresa deunak eta Donibane Gurutzak, beste-lako eraskin batez, jainkora erabili zuten koplaz egun au:

*Vivo sin vivir en mí,  
y tan alta vida espero,  
que muero porque no muera.*

*Nigan bizi ezik bizi naiz,  
eta ain bizi garaia uste dut,  
eziñ illez bainago iltear.*

«Erio-bizi» bekoz beko emate orrek, «bizi ezik bizi naiz... eziñ illez nago iltear» dalako adimen-jokuak, koplarien olertikeratik du ekarria, baita erri-koplaetatik ere. Zeatzago esan, «eziñ illez nago iltear» bertsoa Resenderen *Cancionero Geraken* azaltzen da, eta beste lelo batzuetan ere bai.

Beste oinbeste esan bear ere «eztakit zer» esakizunaz, onen jainkoratzea Donibane Gurutzak egiña dala uste izan baita, baña Pedro Padillaren *Thesoro de varias poesías* deritzan bilduman (1580) arkitzen da. «*Maiteldi baten ondoren*» asten dan olerki politari dagokionez, egazteizako maiteleoen aideko dezu ta D. Alonsok Liburutegi Nagusian begiz jotako olerki baten jainkoratzea: eraskin bat eta asierako koplaz pixkabat aldatzea naiko izan zun Donibane Gurutzak, berarena bada beintzat, jainkora biurtzeko. «*Artzaiñoa*» olerkia, orobat, J.M. Blekuak Parisko Liburutegi Nagusian arkituriko artzai-kanta ezezagun batetik dator: itz baten batzuk aldatu ta azken-kopla erantsi besterik etzun egin Donibanek, olerti osoa



jainkoeraz emateko. «*Ba dakit nik ongi...*» olerkiari dagokionez, berriz, galai-lusitar lirikako *lagun-leloak* deritzatenekin egokitzen du Valbuenak.

Berri auek eta aita ditezken beste askok ere auxe adierazten digute: Donibane Gurutzaren olertigintza, Teresa deunarena bezela, XVI<sup>o</sup>gn, mende-erdiko gaztel-olertikera jatorrean, jainkorakoan alegia, errotzen dala. Jainkorako olerkari dira bibiok. Erri-zantzu andia dute bibion olertitzak, zenbait gertari izanik ere adibide. Donibane Gurutzari gagozkiola, diñotenez, Toledoko espetxean zegolarik, kalea barna zijoan mutiko bati koplau au entzun omen zion:

*Muérome de amores,  
carillo, ¿qué haré?  
—Que te mueras, ¡aláhé!*

*Maitez nago iltzar,  
zer egiñen, kutuna?  
Il adilla, alajaña.*

Santuaren bizi-edeslari batek diñonez, «ain eztiki ta sentikor ere jo zun koplauoak aren belarrietan, erabat berotu ta maitemiña itzali baitzion, eta mintzo artan Kutunarena zetorkiola antz emanik, Arengatik maitetzeko eskubide emanen baledio...». Orrela sartu zan *Barne-eresian* Kutuna (*Carillo*).

Esagun orain zer edo zer E. Orozkok aitatzen dun eragipenez, alegia, Karmengo olertikera jatorraren loraketaz —Menendez Pidalek ematen dion adirazkizunaren arabera—. Karmeldarren bizieran sartzen eta Teresa deunakin da Donibane Gurutzakin zar-berritzen dan kantetako olerti-joera orrek prantziskotarren jatortasuna du sorburu. Izan ere, Prantzisko deunak berak eraginda, «Jaunaren koplarien» ezaugarri izan zan ori, oien artean Fray Jacopone da Todi garaiena dalarik; eta Españan, gaztel-olertikera jatorrean errotuaz, Fray Anbrusi Montesinogan bete-beterik nabari dana.

Teresa deunaren jarraibideak bultza ta eragin zion kantetako olertiloratze oni, atsegin baizitzaion koplau ta zortziko asmatzen. Avilako Julen, aren kapellau zanak, «Jainkorako olertiketa dalako ontan» *berarizko doia* zula adierazten digu, eta inguruko lekaimeak ere oldez alkar-artzen zuten alako olertigintzan, doai nabariz gañera zenbaitzuk. Olertiketa ezezagun ontantxe du sustraia aspaldian Teresa deunari erantsi izan zaion koplau onek:

*Véanse mis ojos,  
dulce Jesús bueno;  
véanse mis ojos,  
muérame yo luego.*

*Zakusatzela begjok,  
Jesus on ta ezti ori;  
zakusatzela begjok,  
eta bertan il nadi.*

Erri-koplau ezagun bate jainkoratzea dana; 1571<sup>o</sup>go Pazkotan, bertso auek kantatuz, Teresa Ama kordegabetuazi zun mojetaiak egiña nunbait; Salamankara zijoanean, Teresa Amak onela esaten omen zion: «Ator ona, enetxo, kanta izkidan alako koplauo aiek».

Aipa oi da ere beste olerki ezezagun bat, Beasko mojetaegian, espetxealdi ondoren, Kalbarioko eremutegira bide, andik igaro izan zanean Donibaneri eskeñi ziotena. Jesusen Ana Ama lekaime-buru zanak, jasan bear izan zitunaz ura arindu asmoz, koplato gartsuen bat kanta zezaiola agindu zion moja bati, eta onek au kantatu omen:

*Quien no sabe de penas  
en este triste valle de dolores  
no sabe de buenas,  
ni ha gustado de amores,  
pues penas es el traje de amadores.*

*Negar-erri onetan  
eztazienak nekeen berri,  
on-berririk eztaki,  
maiterik ere ez txesta,  
nekezko baita maitale-jantzi.*

Prantziska mojak diñonez, «Donibane Gurutzak itz oiek aditu bezela, miñez samurtu zan erraietaraño, ezpaitzekin berak nekeen berri aundirik onen berri askorik jakiteko; ainbat samurtu ere, malkoak ugari asi baizitzaizkion jalkitzen begietatik, arpegian beera mara-mara ixuriz...».

Gertari onek au adierazten digu, *lira* dalakoa Donibane Gurutzak bereak sortu baño lenago sartu izan zala karmeldar arteko olertitza ontan.



Olako olerti-giroan, Zortzikotegikoan bezelatsu, bakarka ta alkarren artean ere gerta oi zan koplaketa; ori dala-ta, nunbait, Teresa deunaren «nigan bizi ezik bizi naiz» gaiari eraskiñak (glosak) Donibane Gurutzen aapaldien artean sartu bide-ziran. Izan ere, bibiek olertiketa jator onen egille ta eragille bezela izandako nortasuna zala bide, biei erantsi zitzaizkien aien inguruan sortu izan ziran koplaketa ta kantak oro, baita zenbait gerogokoak ere.

Auen eta beste zenbait gertarien arabera, au atera diteke ondoretzat: Donibane Gurutzen olertitza bear bezela aditzeko, naiz aintzakoena aren nortasun aundiak aditzera eman, kantetako olerti-ekarri oni oartu bear zaiola. Garzilasogandiko eragipena batez ere Sebastian Cordobak egiñiko jainkoratze bidez datorkion bezela, beste ekarri orrena orobat, olertiketa landuarena ta erri-koplaketa jatorrarena alegia, batez ere karmeldar kontentuetan banan eta baten sortu ta ugaltu zan jainkorako iraulteta orren bitartez datorkio.

### Donibane Gurutzen olertikera

Donibane Gurutz, olerkari danez, azi ta ezirik zegon oñutsen artean sartu orduko. Medina Landako Jesusen Lagundiaren ikastetxeko ikastaldian izan zun olertirako azikera; batez ere A. Bonipagiren irakatsi ta egiketari esker. Aritu ere, an ari izango zan olertiketa-lanean; orixe egiztatzen dute jesuita entzun ark «olerkari on bati neurtikeraz» gutunean azaltzen ditun bururakizunak. Etzitzaion ari naiko neurtitzak *aindo ta neurri* izatea, ortaz gañera «itzak azta ta aulak eta alperrikakoak aintzakoago ta adierazleago diranen orde utzi bear dirala» eskatzen baitzun. Latindar ta greziar aitorrak, batez ere Birgili ta Teokrito, irakurritz ta buruz ikasiz egindako ikasketa onek garbi azaltzen digu olerkari mistikuaren neurtizketarako antze oi ez bezelakoa.

Joan Yepes gazteak, aldi berean, enparantzetan eta kanpoetan langileen, arotzen eta nekazarien aotik Zortzikotegiko ta erri-lelotegiko koplak entzunez ere osatu zun bere olerkari-aziera; orobat gaztel-liburuak irakurritz, eta Garzilasoren neurtitzarekiko balakuz ta zolitasunaz ere.

Baña bein kontentura ezker, aren libururako ta ikasketarako joerak beti erlijiozkora egiten du. Diñotenez, Biblia, Santuen lorea (*flor Sanctorum*) ta San Agustiniñen liburu bat besterik ez omen zeukan bere gelan; kontentuko liburutegitik eskuztatzen zitunak, berriz, beti lasterka ikusten omen. Eta aren erti-arauzko irizpideari dagokionez, bere idazkietan azaltzen digu: soil-soillik eraspenerako asmo bakarrak darago. Garzilasogandiko ta lengo irakurpenetiko oroitza gero ta urrunago du.

Ondo zail da Donibane Gurutzen olertitza —batean mistiku ta olerkari danez— idazkera aldetik begitan ematea. Ain zuzen, Santua bera oartu zitzaion bere *Barne-eresiren* koplak duten korapilloari. An darabilzkin irudikizunei buruz, «auek barnean duten maite ta adimen arauzko asmo laiñoz irakurri ezik, artez ta zuzen esanak baño zentzugabekeri diruditelaketa» diño. Or dago untzea: koplak oriek, Santuak eskatzen dun arabera, «aiek duten maite ta adimen arauzko asmo laiñoz» irakurri. Ongi diño E. Orozkok, alegia, beren gogorakizun edo adierazpideaz zentzuetan barna ain biziro ere jotzen gaituten irudikizun oriek, zail dala berez duten indar ta zentzunaren arabera artu ta, aldi berean, beren adieraz bestalde, oien adiera mistikua txasta ta ikus.

Alaz ere, olerkaria bat dator mistikuarekin, eta aren egintzan, bere gogo mistikuaren barne-eragiarekin batera, ertiliariaren alegiña ta erdiepena nabari da; alegia, esaneziña adierazi naiean, neurtitzak edo itzak irudikizun edo gogorakizun aldetik ezezik beren doñutasunaz ere izan dezaketan almen osoaren billaketa. Ain zuzen ere, egintzako alegiñ ori agirian jartzen du Fray Jerolimak, Beasko mintzategian, Santuak buruan zekarzkin *Barne-kantaren* koplak lekaimej jalki bitartean, gerta zanaz diñonak. Nola moja batek, «olerki aren bikaintasun, gozamen eta sakontasunaz arriturik, itz ain zoragarri aiek Jainkoak-edo bururatu ote zizkion galdetu, eta arek onelka erantzun ziola: “Enetxo, eman ere batzutan Jainkoak, eta bestetan neronek billatzen nizkiñan”».

Santuak berak aitortzen du ere barne-gertari esaneziña azaltzeak dun korapilloa. *Maite-sugar biziren* sarreran, gau «ain barren eta mamitsuetarako... geienetan ezta gauza izaten izkera, gogozkoak eragiten baitu zentzuna, eta mami-mamiki ezpada nekez esan oi da izpien bat barne-muñetikoaz». «Ez-jakitea litzake —diño beste leku batean— adierazte mistikuan maite-esanak... izkera baten bidez aditzera eman ditezenik uste izan». Eta «au dala-ta, arrazoiz baño irudikizun, berdintza ta antz bitartez, senti oi dutenakin gañez egin eta barne-ugaritasunaz ixilleko ta eskupeak pitin bat dituzte ustutzen». Ba du ere alako aldi bat, bertan Santua ez-aal edo agertzen baitzaigu bat-egitealdi gorenaz azaldu eziñez, aitortzen dularik: «Ardandegi onetzaz zerbait esateko ta animak emen esan edo adierazi nai duna aitortzeko, Arnas Gurenak berak bear luke eskua artu ta lumari eragin».

Irudikizun arauzko idazkera ori, beraz, ezta berez elerti arauzko, mistiku-senak eragiña baizik; alaz ere, edozein esantzak bezela, erti-arauzko zentzuna ere ba darama beregan. Eta esakera orren arrigarrien dana: munduarekiko sentikizuna ta ura ukatzea dan munduz-bestaldearen irudikizuneko zentzu izkutua, oi ez bezela batean ematen ditu, orregatik ere



alegorizko olertitza osoan nabari dan gogaikerara ta oztasunera jo gabe. Aitzitik, gogaikerazko ta arrazoizko dan guzia, sentikizunarren, suntsi oi da aren neurtitzetan.

Izadi-gaiak iruditzat erabiltze ta baloratze ori, eztu Santuak neurtizketa-aldian egiña. Ordurako, mendi, ibar, iturri ta loreak, adierazkizun edo irudikizun-bilgo bezela ikusi ta txastatuak zeuzkan. Ainbat senti ta goza izandako *Leloen leloa* zun jarraibide. Atsegin baizitzaion Santuari landa zabalean, baratzen edo eremutegiko bazter lekutueta, batez ere iturri baten alboan, bizi ta otoitz egin; ain zuzen ere «landa atsegiñetan, mendiorkaitzetan, ibai ta iturrietan eta ozkarbi izar narean. Jainkoagandiko aunitz nabari zitzaion». Lekaide-buru zalarik, konbentu-inguruetara, *ibilketa santu* ain maite aietara daramaz prailegaiak, «bakartira zaletu» zitezen eta «lurbira osoa betetzen dun eta izakietan barrendurik dagon itzala aditzera emateko» ere. Praile ta mojen artean dabillearik, «landetako, ibaie-tako, mendi-zelaietako ta an ain zabal da garbi nabari zitzaien zeruko gauzak bide emanik, zerutar ta jainkotiar gauzetaz mintzatzen zan».

Ikuskariak barne-zentzunaz begiesteko oitura onek ongi azaltzen digu nola itza, berez dun esanaren sentikizuna galdu gabe, alegoriz ta irudikizunaz baliatzen dan, eta Izadia beti zentzuz-bestaldeko ta dan-daneko aldetik ikusten. Gauzen izanan, guna, du aintzat artzen, eta itxurak, dandanez, ezer gutxi dio axola. Ortik ere izenaren nabarmena, ez siñeste-rañokoa, aditza bera bertan beera utzia ere.

Ezta bear bezela, guk dakigunez, diño E. Orozkok, Donibane Gurutzen olertigintza osoak kantetako —eta ez idatziz emandako— dun berrizko zantzua adierazi izan, naiz sortu-aldiko joerari, naiz idazkerari ta bertso-igikerari dagokionez. Baruzik, bidez edo ezariz bada ere, aipa bai aipa izan du: «...les strofes du *Cantico* ne sont pas tant les strofes d'un poète que celle d'un chantre». Gerardo Diegok ere agirian jarri du azen-tuen tartekako erabilte berdiña —alegia, amaikakoen eta zazpikoen azen-tua bigarren eta seigarren silabetan, lenengoaren amargarrenekoaz ta ete-naz gañera—, orrela aapaldiaren kantetako tankera egiztatuz. Ori bera azaltzen du ere, len esan degunez, Donibanen bertsoak duten erriagandiko ekarriak.

Olerkirik garaienak —lirak eta zortzikoak alegia— espetxean ondu zitun Donibanek, ez idatziz emateko —an ezpaitzeukan lumarik—, kantetarako baizik. Ori dala-ta, nunbait, diño Jesus-Mariaren Isabele Amak: gordean euki zuten bitartean, «buruan zekarzkin zenbait zortziko esan zitun, berak egiñak, eta moja batek idatziz artu ere». Jakiña da ere prailegaiak, jolasaldian, jatordu ondoan, edo beste egurastaldietan, *Gau Illuna*

ren bertsoak kantatzeko zuten oitura. San Josef Fray Jerolimak diñoenez, *Barne-eresiren* koplak «maiz-maizenik aoan zekarzkiten mojak» ere.

Bestalde Santuak berak du aitortzen kantetako zun txestallua ta griña. *Barne-eresiren* XXI'gn. aapaldiari jarritako iruzkiñean onela diño: «Liraen doñuak ezteki ta atsegiñez bete oi du gogartea, eta alarik txirikatzen eta lotzen ere, naigabe ta neketatik baitu kentzen». A. Silberik Santuaren koplengatik diñonez, erri-kopla onenak beziñ oldez ta indar berberaz ditxekie belarriei; eta ez ain oldezko ta laiño diralako bakarrik, baita berez kantetarako olerti-zantzua dutelako ere.

Olerki geienak, beraz, sentikizun gañezkari baten esakizun eta kantu bezela sortu zitzaizkion. Oietatik aunitz ortan soillik gelditu ziran; beste batzuk, buruan emanik eta bein da berriro aoan erabilliaz, idatziak izatera iritxi ziran. Etzion berari ardura aundirik bere bertsoak bildu ta idazteaz. A. Gerardoren aburuz, aipatzen diranetako kopla batzuk galdu baziran, «Egilleak buruan soillik euki zitulako ta paperean irauarazi etzitulako» galdu ziran. Ori bera dala bide, nunbait, kopla ezagunak esku-identzietan nabari duten berdiñeza, baita izenpe-urritasuna ere.

Neurtitz-azalkera doñu ta kantu zurrian baloratze orrek, mintzoaren eragintasun biziena erdiestera darama. Ots-itza, berriztea, bereixtea ta, batez ere, doñukidea, gutxitan gerta izan da gaztel-olertitzan Donibane Gurutzengan bezin eragikor, gogaia ta zolitasuna ain zuzen egokituz ta adirazpide-almena areagotuz. Ortaz gañera, aren olerkien berarizko barne-igimena kantetarako, irakurpenaren betibateko elaire berdiñik gabe. Zuzen dabil A. Krisogono esatean: «Doniane Gurutzak musikaren gozamen garbia bere baitan senti izan ezpalu, etzukean iñoiz bere *Barne-eresia* idatzi al izango». «Aren bertsoak —diño gero— eresti baten eduko dira».

Fray Luis leonek jakintsu ta olerkari antzo sentitzen du Izadia: bere animarentzako atsedebide ta bere izan-izatearen ginga du olertitza. Baña oar zaio ere —eta ain sakon ta eder—, zentzuz-bestaldeko sentikizunaz ikuskarietan nabari zaion Egillearen edertasun eta betegiñaren errañuari. Berarentzat «bazter orotan Jainkoa da, ta zeruan da lurrian eta beste zer guzietan begitara ematen zaigun ona ta ederra jainkotasunaren dirdira da». Alaere, lurra ta zerua aurrez-aurrez ematen ditunean, berberak esana, alegia, «orotan Jainkoa da»-lakoa ere aztu egingo zaio. Bakarrik «zeruaren eta izarren bikaintasunak eta politasunak (esango dio) oiuka nor ditekén Jainkoa». Gau narearen, biotza gozarazten dion doñu ixillaren oiulari degu Fray Luis, ain zuzen ere, ura betikotasun-miñaren, egiazko pakearen eta jakitearen eranarazle baitu. Zerua, *aunditasun-egoteji* ta *maitasun-jauretxe* bezela ezezik, betiko kerizpearen *irudi* bezela agertzen zaio; eta lurra,



onen edertasun guziaz ere, bere sentikizun miñean, *zerrapo, baitegi, ibar sakon eta illuna* du.

Ona emen, diño E. Orozkok, Fray Luis Donibanegandik berezkatzzen dun aldetako bat. Jainkotasun-dirdira begiztatu ondoren, jexten da Donibane goi-begiestetik eta, begiek lurreratzean, Jainkotasuna bera, Laztanaren itzala ikusten du izakietan. *Orotan Jainkoa da*, diño Fray Luisek; *izakiak Jainko dira*, berriz, Donibanek.

Emen izakiak geldiro ta maite-maiteki begiesten da txastatzen dira, Fray Luisengan ez bezela, baña beti itxuraz-bestaldetik begiesten ere. Ikuspegi bizkorra, bizi-bizia sortarazten digu Donibanek; iztaez-gaindiko mundu bat adieraziz ta gomatus, aldi berean begiz-begi daukagun alako ikuskari bizi batek bezela jotzen eta txikiratzen gaitu zentzuetan barna. Orori oar gatzai, goarpen zorrotzenai, meenai, barne-zentzumenez senti oi danari ere: *otxaroari*, urrinteen *joanari*, lorreen *usainztatzeari*, aizeen *xistuari*, *urretxindor eztiaren txiuntari* ta *murmurika ixillari* ta *bakardi zoliari* ere. Zentzumen guzietan, ordea, entzukiak dira nagusien, eta Santuak berak diño zergatik dan ori: izan ere, belarriz senti oi danak «barnerago egiten baitu». Gaztel-olertitza osoan ezta beste ikuspegiarik aizez, eguratsez, au baño beteagorik. «Ur, aize, sargori» dira; «zure egada-aizea» da; «aize ezti xistua»; «aize-arnastea»; «dorreko aizeak», edo «izai-ostrailak» igortzen duna. Ezta, ez, alako egurats geldi, idurizkorik, *arnasten*, *xistua* entzuten, urrinteak ixurtzen eta usoari ta usapalari ezezik animari ere *egatzen* uzten diona baño. Ain zuzen ere oartzen zaio Santua aizeak sortarazten dun zentzukizun biko oni: *ikutuari* ta *xistu* edo *soñuari*, alegia; berak diñoenez, «belarri-xokoetan zorrozki sar oi dan» aize-xistu orri. Doñu ezti ta leunean batez ere, «gozaro jotzen dunean, alako otzautsi apetaz zegona asetuz...», orduan baita gozartzen eta atsegintzen entzumena; eta entzumen-gozagallu onekin belarriak berarizko gozagarri ta atsegin senti oi du aizearen doñu ta xistuan, ukimenak aize-ikutuan baño askozaz geiago, barrenkorrago baita entzumena».

Labur esan, Donibane Gurutzengan ikuskarien barnekoratzeak goiena jotzen du, jainkotasun-erpiñera egiten da. Orra aren olerti-miraria: Izadiaren edertasuna erakartzen eta goraiatzten digu, eta orrela Jainkotasuna bera adierazten. Izadiak eta Laztanak bat-jo dute edertasunez:

*Nere Maitea, mendi,  
zelaigune bakar, oiantsu,  
urrutiko izaro,  
ibai durundatsu,  
aize ezti arnas-xistu.*

## DONIBANE GURUTZEN OLERKI ONENAK

Onoko autaketa onek eztu kritika arauzko izan nai. Oraindik ere eztagu zeintzuk diran egi-egiaz Donibane Gurutzen olerkiak. Bearbada Sanlucarko esku-idatzian datoztenak, ziur asko, Bruselasko (1627), Jaengo ta Sacro Monteko bildumetan ere bai badatoz. Emen Donibane Gurutzen iru olerki garaienak, ots, *Gau illuna*, *Maite-kantak* ta *Maite-sugar bizia*, sartzen ditut; auetaz gañera, beste bost olerki ez ain aipatuak: guziak zortzi.





## GAU ILLUNA (A)

*Arimaren koplak: bere buruari uko egiñ-eta  
poz baita Jainkoarekin bat-egitean  
betekundea jo dulakoz.*

Gauaro illun batean  
yoranez, maitez sukarrean,  
—oi ene zoriona!—  
ixil irten nintzan,  
nere etxea zegola pakean.

Illunaldiz, mozolo,  
zurubi gordeaz uste onean,  
—oi ene zoriona!—  
illunaldiz, kirika,  
nere etxea zegola pakean.

Gauaro doatsuan,  
gordeka, iñor oar ez zalarik,  
ezer ez nenkusala,  
ez argi ez gidari  
biotza sutan zeukana baizik.

Gau onek gida nindun  
eguerdi-argiak bañon obeki,  
jakiñ ere nik ongi  
nekian Arengana,  
bertan iñor ezpaitzan ageri.

O gau biderakusle,  
argi-urratzez gaini atsegin,  
maiteak alkargana  
zenituna bat egin,  
Maiteñoa bat Laztanarekin.

Nere galtzar-lorean,  
Arentzat oso baineukan gorderik,

loak artu zun gozaro,  
nik Ari maite egiñik,  
ta izai-ostrailak aize emanik.

Nik Aren adats-izpi  
orraztu bitartean, dorreko  
aizeak lepoan guri  
joaz, zentzuak oro  
lillura jarri zizkidan oso.

Ba negon egon, t'antzi,  
Maiteagan etziñik betarte;  
oro geldi, eta ni  
zitori lorez arte  
onean nindagon ardura gabe.



## GAU ILLUNA (B)

Nere zorional — Gau illunean,  
maitez su-garretan, — iñor oarkabe  
atera nintzan, — etxe-barruna  
iabal neukanean.

Illun, bildur gabe, — zurubi gordetik  
mozorro-iantzian, — illun, zelatan,  
etxe-barrua — iabal neukanean.

Gau doatsu artan — ixil, iñork ere  
ez nidekusala, — ezer ez nik ere,  
nere biotzeko — argia baizik  
gidari ez nula.

Au nendun gidari — eguerdi-argia  
baiñon areago, — nik nekin tokian  
zegon Arengana, — iñortxo ere  
ageri etzala.

Gau doatsua! — argia baiño  
maitagarriago — zitzaidan gaua!  
Artan bildu ziran — Maite ta Laztan,  
Laztana Maite — biurtzen zala.

Lore-galtzar ontan, — oso osorik  
Arentzat baineukan, — lo geldi zitzaidan;  
maite egiten nion; — izai-ostoak  
aize zegion.

Nik Aren adatsak — orraztu artean,  
dorreko aizeak — esku legunez  
lepoan ni ioaz, — zentzuak oro  
lotu zizkidan.

An geldi nintzan, — nitaz aztu nintzan;  
burua makurtuz — Aren galtzarrean.  
Oro geldi zegon — An nere kezka  
egotzi nendun — lilien artean.



## MAITE-KANTAK (A)

*Kristo ta Anima ezkontideen alkar arteko olesak.*

### *Emazteak:*

Nora zaitut kuku,  
Maitea, ni emen lagaz intziri?  
Zauri nuzu-ta, ba zoaz  
oreña bezela nigandik;  
oiuz narraizu, eta Zu igesi.

Arditegitik larrera  
ibilli zabilzten artzai oriek,  
baldin nere maitena  
badakuszue, gaixo  
nagola esan, miñez, il-urren.

Ibar-mendi gaindik  
nere maiteen billa joanen,  
eztut lore biltzerik,  
basa-piztuez ez izu,  
gaztelu ta muga iraganen.

Oi baso eta itzalpe,  
Maiteak eskuz landuak naro,  
oi zelai ori-uridin,  
lore pinpiñaz bitxi,  
esan zuetatik al dan igaro!

### *Izakiak:*

Amaika eder-jario  
zailu joan da zuazti otatik,  
eta begira zoala  
aren itxuraz utsez  
bai eder utzi ere jantzirik.

### *Emazteak:*

Ai, zerk senda nazake?  
Egizu noizpait neregana!  
Etzaidazu gaurgero  
mandataririk bidali,  
etzakite-ta nik nai dudana.

Or dabilzkit denak  
zure ainbat ederren goresle,  
eta naukate minbera;  
il-urran ere nagozu  
zer zeraz ari dirala zezele.

Baña nola dirauk,  
bizia, euregan bizi ezik,  
Maiteaz gogoratzez  
datozkikan gezitan  
il-bizian agola errerik?

Biotz au zaurtu eta,  
nola eztuzu senda nai izan?  
Ostu izanik, nola  
uzten duzu onela,  
ta ostu duzuna ez eraman?

Itzali nere kezka,  
ezer ez baitu aringarri!  
Zakusatzela begiok,  
auen argi bai zera:  
Zuretzat bakar nai ditut ekarri.

Ager zakit beingoan,  
il nadi zure ederra ikustez;  
ain zuzen maitemiñak  
ez baitu sendatzerik  
begiz begi ikustez bestez.

Oi iturri gardena,  
zure zillar-azpegi oietan,  
barnean irarririk



dauzkatan begiñoak  
erakuts bazenetza bepetan.

Ken itzazu, Maitea,  
egan noa-ta.

*Senarrak:*

Zatoz, usoa,  
ara muñoa gaindik  
zure egal-aizetan  
zauriz oreña, t'atsartuz dagoa.

*Emazteak:*

Nere Maitea mendi,  
zelaigune bakar, oiantsu,  
urrutiko izaro,  
ibai durundatsu,  
aize eztien arnas-xistu;

gauaro izar lorea,  
goizalde bitartera danean,  
murmurika ixilla,  
bakartasun ozena,  
apari pozgarri maitasarrean.

Axeriak atzeman,  
loretan baitago gure maasti;  
larrosaz bitartean  
egiñen dugu bilgo,  
eztedi iñor mendian nabari.

Ago i, Ipar illa;  
ator i, Egoa, maite-ekarle,  
ufaka usaionez  
egiok baratzari,  
Maitea loretan dedin ase.

Ots, judear neskatil,  
lili eta larrosa artean

urin-usai dirauno,  
zagozte auzoetan,  
ez egin otsik gure atean.

Kuka zaite, Kutuna,  
soizu arpegiz mendi-aldea,  
ta ez esan iñori;  
orra izaroz bakar  
dabillen onen lagun-taldea.

*Senarrak:*

Egazti ariñ eta  
leoi, basauntz, orein jauzkale,  
mendi, zelai, ugaran,  
euri, aize, sargori,  
gaueko laztura begirale:

lira atsegiñ eta  
sirenen zora-kantuez, arren,  
bego zuen aserre,  
ormarik ez ikutu,  
Lagunak ongiroz dezan atsedan.

Emazteak egin du  
gogozko atsegin baratzera;  
bere gogara datza,  
lepoa makurturik,  
Laztanaren besarte narera.

Sagarrondo azpian,  
antxe zindudan nerekin ezkondu,  
an nizun esku eman,  
zure ama galdu zan  
toki berean ziñan bizkortu.

*Emazteak:*

Gure oea loretan,  
leoi-aitzuloz bilbil ertsia,  
purpuraz edaturik,



paketan eraikia,  
urrezko milla iskilluz ornia.

Neska gazteak bidez  
or dabiltz zure lorratzean,  
pindarrez ukiturik,  
ardo onduaz birbiz,  
Jainko-urrinte-jario betean.

Ardangela barrunen  
Maitetik edanik, gero ibar  
inguru nindoala,  
ez nekian besterik,  
lenik narraion saldoa ere gal.

An nindun eradoski,  
an zerakuskidan jakite naro,  
eta naizen au osorik  
Ari nintzaion eskeñi,  
an nion itzeman emazte entzo.

Arima, dudan guzia,  
Aren meneko jarduki baita,  
orain enabil saldozai,  
besterik ez eginkizun,  
maite-izan dut soil ariketa.

Gaurtik erri-basoz  
ez ikus ez arki ezpanendi,  
galdu naizela esan,  
maitetan ibil-eta  
galdu-ustez nautela beretsi.

Goizalde otxaroan  
bilduriko lore ta pitxiz  
egiñen dugu txorta,  
zure maitetan lore,  
loturik nere adats-izpiz.

Nere lepoan bakar  
zuk egan zenekusan berean,  
so-eta an atzi geldi  
baitziñan, eta zauri  
erori begi otako batean.

Begira zindudala,  
zureen itzalak nindun jantzi;  
maite-samur zindudan,  
orrela zuten merezi  
nereak, Zugan joa jauretsi.

Ez nazazula gaitzets,  
baldin lenen beltxeran banintzan,  
so eidakezu orain,  
begira ninduzunetik  
doañez eder bainuzu ni baitan.

*Senarrak:*

Uso zuria kutxara  
itzuli doa altxuma mokoan,  
ta orain usapalak  
maitekide laguna  
batu du ibaiondo naroan.

Bakarrean bizi zan,  
bakarrean du kabi egin,  
bakarrean darama  
bere maiteak bakar,  
bakarrean dira mitemin.

*Emazteak:*

Pozkida gaiten, Maite,  
eta goazen zure ederrean  
ur gardena darion  
mendi-muño ikusle,  
egigun barnago itzalunean.



Ondorean gorengo  
artzulotara joanen gaituzu,  
ondo gordeak baitagoz;  
eta barnera egiñik,  
mingrana-mistela edanen dugu.

An ager zaidakezu  
nere arimak ain gogo izana,  
an emanen didazu,  
nere bizi zerana,  
aurretik eman zenidana.

Eguras-artze ura,  
urretxindorran txiunta gozoa,  
ibarra, ango giroa,  
gauaro izar narean  
miñ gabe sar oi dan sulanboa.

Iñor ez ikusmira,  
Etsaia ere izkutu zegoan;  
bare zegoen esia,  
eta zalditeria  
ur-begitik beera zijoan.

## IAINKORAKO MAITE-LELOA (B)

*Kristo-ta Anima*

*Anima*

Non zaude kuku, Maite?  
Emen nuzu mingulin.  
Oreiñak antzo, iota  
nadukazu maitemin.  
Atzetik oska nuzu,  
ta Zuk neri aldegin.

Sarobitik muñora  
ardien zai oana,  
baldiñ ikusten baduk  
nik maiteen dudana,  
esaiok nola nagon  
min, illun, ill-urrana!

Zure billa niazu,  
piztien bildur gabe  
ez loreak biltzera,  
mendira, ibarrera  
arresi ta gaztelu  
bizkor igarotzera.

Oi nere Maite orrek  
landa zaituten oian  
eta baso itsuak,  
esaidazute, esan,  
belardi loretsuak,  
emendik igaro dan!

*Izakiak*

Ariñ igaro zaigu  
zoramen dariola,  
ta begiratuz utsez,



gu ikusiz doala,  
daukan edertasunez  
apaindu gaitu ola.

*Anima*

Ai, nork senda nazake!  
eman zakit egitan!  
Ez ibili geiago  
neri mandaritan,  
ez dakite mintzaten  
nik nai nuken neurritan!

Andik emendik, Zure  
zoramen esanekin  
zauritzenago naute  
eziñ-esanarekin:  
iltzear nadukate  
bar-bar totel orrekin!

Zelan bizirik iraun  
ez-leku ontan biziz,  
eta maite-geziak  
amuts geldieraziz,  
Arek egin-ukitu  
guziak illeraziz?

Zauritu baitidazu  
biotz au, esaidazu,  
ez al duzu sendatzen?  
Lapurtu badidazu,  
orrelan utzi bage  
lapurto au ar zazu!

Arren, begion argi,  
ez eduki mingarri  
nereok, senda itzezu  
zaitzaten ikusgarri,  
Zutzat bakarrarentzat  
nahi ditut ekarri!

Maitemiña sendatzen  
badakit neke dala;  
aurpegi eder ori  
agertu dakidala!  
Zu begiz ikusteak  
erioz il nazala!

Oi iturri gardenala!  
zillar-leiar orretan  
agertuko balira  
nik nere erraietan  
irarririk dauzkadan  
begi oiek bet-betan!

Ken, Maite! Baniazu  
egan.

*Kristo*

Itzul, usoa,  
orein zauritu onek  
gainduko du muñoa.  
Zure egal oietatik  
arturik otxaroa!

*Anima*

Nere Maitea!: baso,  
zelai gorde, oiantsu,  
urrutiko izaro,  
erreka txurrutatsu,  
aize maiteen xixtu:  
ori ta are zera Zu.

Gau ixil paketsua,  
goiz-argitik urbilla,  
bakardi ozenean,  
musikaren ixilla,  
maitasuna dakarren  
apari zuzpergilla!



Matsa lore daukagu,  
ta axariak atzeman,  
egin dezagun xorta  
arrosaz bitartean,  
ez baita nabariko  
iñor gure landetan.

Ixo! Ipar, erio!  
Ego, maite-ekargarri!  
io nere baratzean  
usaien zabalgarri;  
an aseko Maiteak  
loreetan egarri.

Iudar neskax-lagunak!  
lili ta arrosa artean  
usai onek dirauño,  
zaute aldamenean;  
arren, ez egin oles  
gure etxeko atean.

Kuka zaite, Maiteño,  
menditara begira,  
gorde ixil-gordea,  
neskax-lagunak dira  
izaro galduetan  
dabillanaren billa.

#### *Kristo*

Arren, egazti ariñ,  
leoi, orein txantxari,  
ibar, mendi, ugalde,  
euri, aize, sargori,  
esnai ta amets artean  
gau latzaren zaindari.

Sirenan zora-kantuz  
dagizue arago,  
gorde asarre ori;

ez txintik ein geiago  
andregaiak lo egin  
dezan seguruago.

Sartua da Laztana  
gogo zun baratzean;  
bere gogara datza  
loa, bete-betean,  
lepoa makurturik  
Maiteren besartean.

Elkartuak gaituzu  
sagar-ondo azpian,  
an, eskuak emanez  
senar-emazte giñan;  
osasuna arki duzu  
amak galdu tokian.

#### *Anima*

Gure oia lore da,  
leoi-zuloz ertsia,  
purpuraz iñaurrik,  
pakeak eraikia;  
bizkorren iskiloez  
inguruan iantzia.

Zure urratsen segi  
nexka gazteak doaz,  
txinpartak ukituak,  
birbiz, on dan ardoaz,  
biotza bizkorturik  
Iainko-usai gozoaz.

Maiteren ardangelan  
edana naiz barnean;  
berriz landa ontara  
atera nintzanean,  
saldoa galdu nendun  
ezer ez oroitzean.





An eradoski nindun  
iakite txit gurias;  
an eskeñi nintzaion  
nerau, dudan guziaz;  
bere nindula agindu  
nion, danak utziaz.

Anima, dudan oro  
eman nion mendeko;  
enaiz geio saldo-zai,  
ez dut deus egiteko;  
ontarako bakar naiz:  
Maitea maitatzeko.

Aurrera larrañean  
ikusten ez nautela,  
esanen dute, naski,  
maitez galdu naizela:  
galgarri nintzalarik  
irabazi nutela.

Goiz otxean bilduzko  
lore ta pitxiakin,  
egiñen dugu xorta  
Zure maitasunekin,  
eta nere buruko  
ille eio batekin.

Lepoan egan bakar  
nik nenkarren illean;  
so zenegion eta  
bertan lotu ziñean;  
zauri ziñan erori  
nere begi batean.

Begi oiek neretan  
eder ziran ixuri;  
ala nintzan txit maite,

ala zuten merezi  
zuretan zekustena  
nereetan iauretsi.

Ez esker gaizto neri,  
nizaizulako beltzun;  
so egidazu, beintzat,  
begiz io baininduzun,  
ederrez, zoramenez,  
apain iaintzi ninduzun.

### *Kristo*

Badator uso txuri  
mokoan muskilakin  
kutxara; uxapala  
maite zeukan Arekin  
urondo urdiñetan  
batu dira alkarrekin.

Bakarrean bizi zan,  
bakarrean kabia  
egin du, bakarrean  
du maite gidaria;  
bakartasun aretan  
artua du zauria.

### *Anima*

Maita igun elkar, Maite,  
goazen oian-barnera,  
Zure edertasuna  
mendian ikustera,  
muñoari darion  
uretik edatera.

Andik gorago dauden  
artzulo gordetara,  
aietan bi-biñook  
ixil sartuko gara,  
ta puni-sagardoa  
dedakegu gogara.



An erakutsiko Zuk  
nik gogoan dudana,  
emain ere didazu  
—nere bizi zerana—  
aurreko egun artan  
an eman zenidana.

Aizearen arnasa  
txindorraren txioa,  
izar dagon gauean  
inguru on-giroa,  
min gabe erretzen dun  
sugarraren lanboa.

Etzegon inñor beha,  
Txerren leize zuloan;  
esi-barrua pake  
iabalean zegoan,  
eta zalditeria  
ur-begitik zioan.

«ORIXE»K

## BARNE KANTA (D)

### *Emazteak*

Nora jun zara, Maite,  
ni emen lagarik min-garrasika?  
Orein antzera zoaz  
iges ni zauriturik;  
emen nozu deiez, ta Zu gordeka.

Artzaiñak, larre-bidez  
ortik bait-zoaze muiñoan zear,  
nik maiteen dodan  
A baldin badakuzue,  
aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Maitasunaren billa  
mendi-aran orreik zear noake;  
ez dot loraik artuko,  
ez ni piztien bildur,  
zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Oi, baso ta leku itsu,  
Maiteak jarriak eskuz emaro!  
Oi, lorez jositako  
barazki-zelai musker,  
esan zuetatik danez igaro!

### *Izakiak*

Milla eder-jarioz  
arin igaro zan ibar otatik,  
ta begiratu soillez,  
bere itxuraz bakarrik,  
guztia itxi euskun eder jantzirik.

### *Emazteak*

Ai, nok osa nagike!  
Onezkero neure zaitez, egitik.



Ez egidazu igorri  
gaurgero geznairirik  
nik naia esaten ez dakidanik.

Bai, or-an dabiltzanak  
milla zoragarri Zutaz diñostez:  
danak zauritzenago  
ta il-urren naukie  
itz erdizko esan-ezin motelez.

Baiña zelan dirauzu,  
bizi, zagozanez ezin bizirik,  
ta il-bearrez bazaukaz  
Maiteaz gogartuak,  
barrena dozula gezik beterik?

Zauritu bait-daustazu,  
biotz au zelan ez dozu osatzen?  
Ta ostu badaustazu,  
zergaitik olan itxi,  
zergaitik ez dozu lapurtua artzen?

Ito nere sumiña,  
au itzaltzeko beste ezpaita nainor;  
zakusela begiok,  
euron argi bait-zara,  
ta Zutzat soilki nai ditut izan zor.

Erakuts betartea,  
ta il nagizu zeure zizta ederrez;  
maite-miña ziurki  
ez dau ezerk osatzen  
itxurak ezik ta begiz ikustez.

Oi, iturri leiar bizi,  
zeure zidarrezko nini orreitan  
nik muiñean josirik  
daukadazan begiak  
ñirñir bazeuskidaz dardar gozotan.

Ken egistazuz, Maite,  
egazka noa-ta.

*Senarrak*

Biur, usoa;  
or orein zauritua  
zure egaizez da ageri  
muiño-gain, eder daua otz-aroa.

*Emazteak*

Oi, ene Maite! baso,  
ibar-arte, zelai bakar oiantsu,  
oi ez lakoxe ugarte,  
erreka soiñulari,  
aize bigunaren maitezko txistu.

Gauaro ixil baketsu,  
argi-nabarretik ur danekoa,  
musika-ots ixilla,  
bakar-leku ozena,  
apari eder maite-min eztizkoa.

Azeriak eizatu,  
loretan bai dago gure maastia;  
larrosaz bitartean  
egingo dogu txorta;  
ez begigu iñortxok izu mendia.

Ago geldi, Ipar illa;  
ator i, Ego leun, maite oroikor;  
jo ene baratzean,  
Aren usain-jario,  
lilietan doke Maiteak azkor.

Oi, judear neskatxa,  
lore ta larrosak lurren-ixurka  
dirauren bitartean,  
zagoze basaurian,  
gure etxondoan ez ekin oin-oska!



Gorde zaitez, Maitetxo,  
jo begi-zartaka mendi-erpiñak,  
t'ez gero ñori esan;  
baiña jo, ugarte arrotz,  
deslai doanaren neskatx-lagunak.

*Senarrak*

Egazti ego-arin,  
leoi, basauntz, orein, orkatz jauzkari,  
mendi, zelai, uralde,  
euri, aize, sargori,  
gau ernai igaroen izu dardari:

Arren, lira atseginkor  
ta itxas-zora-kantuz dagitzuet zin,  
bare zuen sumiñak,  
t'ez ikutu ormarik,  
Kutunak baketan atsedean dugin.

Sartua da Emazte  
opa eban baratz zoragarrian,  
ta gogo beroz datza  
samea makurturik  
Maite duanaren besarte ezian.

Sagar-ondo azpian,  
antxe ziñean bai nigaz alkartu,  
an neutzun emon esku,  
zure ama galdu zan  
tokian bertan zu ziñan osatu.

*Emazteak*

Gure oe loreti  
ingurutik leoi-lezaz esia,  
gorritan edatua,  
bakerik eragia,  
eun urre-ikurdiz eder jantzia.

Zure lorratz atzetik  
bidean dabiltza neska gazteak,  
txinpartak ikututa,  
ardao onduaz txerbel,  
Jainko-lurrunetan bizkor barneak.

Ardangela ixillean  
Maiteaz ni ase, ta gero ibarrez  
abia nintzanean,  
enekian ezertxo,  
lengo elia be ez neban jarraiez.

An nindun ugatzatu,  
an irakats eustan eztizko jakintza;  
nik, ostera, nazana  
oso neutsan eskiñi,  
betikoz emonik emazteko itza.

Kemen ta dodan oro  
Aren morroitako dot eukerazi;  
ez naz gero eli-zain,  
ez nik beste arlorik,  
maite izan dot soilki jardun berezi.

Gaurtik ni usa zear  
ez baldin banabe ikus-idoro,  
galdu nazala esan,  
maite-jolaska ibilki,  
galdua egiñik nabela atxilo.

Lora ta pitxi guriz,  
—goizalde otzean biok batuta—  
egingo dogu txorta,  
Zure maite-suz gara,  
ene ule batekin alkar eiota.

Ule bakarño ari,  
nik lepoan egaz nenkarrenari



ene saman so zeuntson,  
eta, Zu bertan barro,  
neure begi baten jaus ziñan zauri.

Zuk ni begiz jotean  
begiok ninduen doaiz edertu:  
alan ninduzun maite,  
ta alan eben merezi  
Zigan ekusena, nireak gurtu.

Enagizu ezetsi,  
beñola azal baltz baninduzun aurki;  
orain so eikedazu,  
Zuk begitu ondoren  
eder-dirdira bai eustazun itxi.

*Senarrak*

Uso zuria barriz  
abarraz kutxara yaku biurtu,  
baita usapalak bere  
ur-ertz orlegietan  
maite eban laguna jarrugi dausku.

Bakarrean bizi zan,  
ta bakarrean dau abia egin,  
bakarrean daroa  
bere maiteak soilki,  
bakarrean au be maite-zauriz min.

*Emazteak*

Goza gaitezen, Maite,  
ta goazen zure doaiz asetzen  
ur gardena darion  
mendi-muiño aldera;  
barnego itzalean sartu gaitezen.

Eta andik aurrerantza  
artzulo goitara goakez gero,  
txit ostenik bait-dagoz;

an bi-biok sarturik,  
granada-mistela dogu txastauko.

An Zuk erakutsiko  
nik apeta bizi gogo nebana,  
baita emongo bere  
an Zuk, ene bizia,  
beste egunean emon zeustana:

Aizearen ats mea,  
txindor eztiaren maite-leloa,  
ibar ta ango giroa,  
izar dan gau narean  
min gabe erretzen daun sugar-lanboa.

Etzan iñor begira,  
etzan Txerrena be agiri iñondik,  
esia bake egoan,  
zalditeria barriz  
ur-begi aurrean joian jatsirik.

*A. ONAINDIAK*



## MAITE-SUGAR BIZI (A)

*Animaren kantak, Jainkoarekin  
maitez bat-egite aldiko gozoan*

Nere barne-muñetan  
samurki zauri nuzun  
maite-sugar bizi leuna!  
ter-ter jo nuzu eta  
urra, ala nai izanez,  
elkartze gozo onen euna!

Oi errealdi mee!  
zauri ezti bai ezti!  
eskugain legun, ikutu samur,  
zeru-zantzu duena!  
Zorrak oro ordainduz,  
eriotza bizi didazu biur!

Oi suzko argi-mutil,  
zuen diztiraetan  
zentzu-leze sakon illunak,  
ipi-apa bitxitan,  
argi ta bero dauzka  
arrigarri ondoan Lagunak!

Kolko ontan soillik  
ixilpe zagozan orrek  
maiteki, emaro, daragidazu,  
t'arnas egiñik gozaro  
onez gañezka, eztitan,  
mamiki maitemintzen bainazu!

## MAITE-SUGAR BIZI (B)

Nere animaren — muiñik barnenean  
xauritzen nuzun — maite-sugar bizi!  
zuzen io bainuzu, — erre nazazu bein!  
urra, oldar ontan, — bizi onen mintza!

Oi erretze guri! — zauritze kutun,  
eskugain legun! — ukitu mehe!  
zor oro berdinduz — zeru-usai baitu  
eriaz bizia emaiten — didazu!

Oi su-argi-ontzi, — argiz ta beroz  
zentzuen leize — beltz ilunenak  
eder eta garai, — argitzen baititu  
Maitearekin.

Bakarrik baitzaude — nere galtzarrean,  
emeki, maitaro — iratzarten nuzu.  
Ta Zure arnas — zerutar orrek  
igurtzi naunean, — zeñien goxoki  
maitemintzen nuzun!

*«Orixe»k*



## IV

*Animaren leloa, Jainkoa  
siñismenez ezagutzeaz poz dalako*

Ba dakit nik ongi laster darion iturri,  
gaez izanarren.

Gordean egonik ere betiko iturri,  
ba dakit ongi non dun bere gordegi,  
gaez izanarren.

Ez dakit non dun sorburu, ez dulako,  
bai ordea an sortzen direla jatorri oro,  
gaez izanarren.

Ba dakit ederragorik ezin dala,  
ta zeru ta lurak andik dedatela,  
gaez izanarren.

Ongi dakit argan ez dala ondorik,  
iñork ezin dula ubide-egin,  
gaez izanarren.

Aren argia ez da iñoiz itzaltzen,  
ba dakit argi oro an dala sortzen,  
gaez izanarren.

Ba dakit aren urbizi ain aundi direla,  
suleze, zeru ta jende ditula urezta,  
gaez izanarren.

Iturri ontatik sortu oi dan jario  
ba dakit ain gai dala, oroz gañeko,  
gaez izanarren.

Ba dakit, biotatik darion joaira  
bata bestearen aurreko ez dala,  
gaez izanarren.

Betiko iturri au, bizia emateko,  
ogi bizi ontan gorderik dago,  
gaez izanarren.

Emen ari zaie gizakiei deika,  
illunez arren, ur ontan ase dira,  
gaez dalako.

Ain gogoko zaidan ur bizi au  
ogi bizigarri ontan bai dakust,  
gaez arren.



## V

*Kristo ta animaren Jainkorako beste zenbait kanta*

Artzai gaixoak min du bakar,  
pozik gabe, atsekaberik,  
artzaineska gogoan emanik,  
biotza zauriz aren maitetan.

Ezta minduru maiteak zauritzez,  
orrek eztio damurik ematen,  
biotza zaurituz edukiarren;  
aztu dulakoz ari da negarrez.

Artzaineskak azturik daukanaz  
gogora utsez, atzerrian  
mingarri nai du gaitz-eraman,  
biotza zauriz aren maitetan.

Onela diño: Ai ene! zoritxar  
ni maitatzea nai eztunari;  
nigandik alde dabillanari,  
biotza zauriz aren maitetan.

Andik luzaro zugaitz batean  
besoak edo ditu ederrik,  
eta bertan geldi da illotzik,  
biotza zauriz aren maitetan.

## VI

*Otoitz aundiko zentzu-galtzeaz egindako koplak*

Ez-ezagunera egin nun,  
ta jakinge geldi nintzan,  
jakite oro gainduz.

Enekian nora nintzan,  
bañan ara ninduzun,  
eta nun nengoen jakiñ ezik  
gauz aundi jakin nitun;  
ezin dut esan an senti nuna,  
jakinge geldi bai nintzan,  
jakite oro gainduz.

Pake ta errukizko  
jakite betea zenun,  
bakartasun beltzean,  
bide zutari buruz;  
gauz ain ixilla izanik,  
totel geldi nintzan,  
jakite oro gainduz.

Ain txirika nengoen,  
ain txundi ta zurrun,  
nere zentzumenetik  
erabat besterenduz;  
eta nere gogamena  
adi-eziñez adidun,  
jakite oro gainduz.

Egi-egiz araño dana  
beretik piran dagozu;  
lendik jakiñ izana  
ain zatar dirudizu;  
ta jakitez ain geituz doa,





jakinge geldi dalarik,  
jakite oro gainduz.

Zenbat gorago egin,  
ainbat gutxigo adi nun  
gaua argitzen duen  
odeia zala illun;  
beraz jakitun zana  
jakinge geldi oi da,  
jakite oro gainduz.

Jakite ez-jakiñ au  
ain da ere altsu,  
jakitunak aideraziz  
ezin dutela gallendu;  
euren jakitea ezтитеке  
adieza aditzera eldu,  
jakite oro gainduz.

Jakite goren au ere  
ainbateko duzu,  
jakite-almenik ezta ura  
dezakena burutu;  
norbait ezi baledi  
ez-jakiña jakiteaz,  
joanen beti gainduz.

Ta entzun nai baduzue,  
jainkozko Izateaz  
gorenik sentitzea da  
jakite guzizko au;  
aren errukiz baita  
adige geldiraztea,  
jakite oro gainduz.

## VII

*Animaren koplak, Jainkoa ikusteaz miñez daglako*

Nigan bizi ezik bizi naiz,  
eta alako ustea izanik,  
iltear bainago eziñ illez.

Yadanik ez naiz nigan bizi,  
ta enaiteke bizi Jainko gabe;  
bera gabe, ni gabe, geldi banaiz,  
bizitz au zer diteke?  
Eun aldiz iltzea zaidake,  
nere bizia bera itxaro baitut,  
iltear bainago eziñ illez.

Bizi dudan bizitz au  
bizi az peitzea daike,  
ta beti iltzen joatea  
Zurekin bizi arte;  
entzuizu, ene Jaun, diñotana,  
ez baitu nai bizitz au,  
iltear bainago eziñ illez.

Zer bizirik duket  
Zugandik alde egonik,  
iñoz lakorik ikusi ez dudan  
iltzea jasan baizik?  
Erruki dut neroni,  
doi-doian iraun dudala,  
iltear bainago eziñ illez.

Uretik kanpo arraiak  
ba du aringallu,  
jasaiten dun erioan  
iltzea lortzen baitu;  
zer eriorik nere bizi



minduri onen berdiñik,  
zenbat bizi ainbat illik?

Ken nazazu erio onetik,  
ene Jaun, idazu bizi;  
lakio ain gogor ontan  
ez nazazula utzi;  
Zu ikus-guraz nago miñez,  
t'ain da guzizko nere gaitza,  
iltear bainago eziñ illez.

Erruki duket orain iltzea,  
ta nere obenak atxikia  
daukaten bitartean,  
mingarri zaidake bizia.  
Noiz izanen, ene Jainko,  
egi-egiz nik esatea:  
bizi naiz orain il gabe?

## VIII

*Egile beraren Jainkorako beste zenbait*

Maitealdi baten ondoren,  
eta ez usterik gabe,  
ain gora egiñik, ain gora,  
eiza bainun atzeman.

Zerutar mugaldi au  
nik atzeman nezan,  
begititik galtzeraño  
eitea zegokidan;  
alaz ere, muga ontan,  
uts egin nun egan;  
baña maitea ain garai izanik,  
eiza bainun atzeman.

Zenbat eta gorago egin,  
begiak txundi nituan,  
garaite gogorrena ere  
illunez gerta oi zan;  
baña maite-muga zalako,  
itsuka jausi nintzan,  
t'ain gora egiñik, ain gora,  
eiza bainun atzeman.

Zenbat eta gorago eldu  
ekite ain garai ontan,  
ainbat berago negian;  
ta eskurago nintzan;  
«iritxi eziña duk», esanda,  
gero ta berago niñoan;  
t'ain gora egiñik, ain gora,  
eiza bainun atzeman.



Ain era arrigarriz eun egada  
igaro nitun batean,  
zerutar usteak zenbat itxaro  
ainbat baitu eskutan;  
muga bakar onen zai egonda,  
enintzan uts irten ustean;  
ain gora egiñik, ain gora,  
eiza bainun atzeman.